

Joseba Intxausti

**ABERTZALETASUN KATALANA
ETA HIZKUNTZA**

Laster dugu Konstituzio berria. Horrek behintzat ez du salbatuko nazionalitateen mintzairarik. Hemendik hilabete batzutarra, Estatutuen arazoa etorriko da, eta euskararen toki ofiziala definituko. Geroxeago, berriz, hizkuntz politika berria izanen da gure gain. Alderdien eta politikoen eskuetara pasako da euskararen etorkizuna: horik izan litezke —Historiak erakusten duenez— mintzairaren lurremaile nahiz salbatzaile.

Salbabidearen aldapa pikoaz ezagutzen sortuko dira zalantzak (ala sortuak dira dagoeneko?): abertzaletasunak nahitaez defendatu behar ote du hizkuntza?

Galdera horrentzat erantzunaren bila, Kataluniako abertzaletasunaren kasua dakargu orrialde hauetara. Hango mugimenduak ez zuen zalantzarik izan. Ikus hemen «Gerra dels Segadors» (1640) delakotik hasi eta II. Errepublikara arte abertzaletasun katalanak nola defendatu zuen bere herriaren hizkuntza.

aurkibidea

I.— Katalana, nazioaren hizkuntza ofiziala

Kataluniako «arazoa»
XVII. mendeko beldurrak

II.— Hizkuntza katalana, desofizialdua

«España», ideia berri bat
Kontseilu zuhurak: «Ley de Nueva Planta» (1716)
Frantziatik salbabidea?

III.— Bizkunde baten bila (1814-1874)

XVIII. mendean erroak
Gizarte oinharriak
Abertzaletasunaren barne egitura
Renaixença, 1833tik aurrera
1833-1841 urteetako bihurgunea
Alderdi politikoak eta hizkuntza (1814-1874)

IV.— «Renaixença» eta hizkuntzaren balioa

Literaturako ideia politikoak
Politikoen ideiak (1874-1930)
Hizkuntza, agiri politikoetan
Hizkuntza, Estatutugaietan (1874-1930)

V.— Ondoriobidez zenbait ohar

**La sangre de mi espíritu es mi lengua.
Y mi patria es allí donde resuena.** (Miguel de Unamuno).

Badu idatzita Unamuno-k paradoxarik franko. Baina, Unamuno-rena izanik, Maragall-engandik jasotzen dudan esaldi horren inguruan, hain literarioa ez den paradoxa gertatu zen.

Maite zuen Unamuno-k bere hizkuntza, gaztelania noski; baina kapaz zen oso inori berea bazter zezala eskatzeko. Eta gehiago ere: kapaz zen, gainera, atrebentzia piska batekin, herri oso bati gauza bera eskatzeko.

Zergatik ez du Kataluniak bere nortasuna gaztelaniaz, eta ez katalanez, zabalduko? Kataluniak gaztelaniaz hitzegin ziezaiola eskatzen zuen Don Miguel-ek.

Maragall-entzat, ostera, Kataluniaren bikaintasunak ez zetozeen nolabaiteko kosmopolitismo batetatik, betidaniko iturrietaiak baizik. Unamuno-k berearentzat zuen maitasun berarekin gorde behar zuen Kataluniak hizkuntza katalana. Hor zeuden nortasunaren iturburuak:

Desde que se levantó el catalanismo como reivindicación de una personalidad nacional particular, y habló en su propia lengua, Cataluña comenzó a significar algo por sí misma. (Joan Maragall).

I. — Katalana, nazioaren hizkuntza ofiziala

Kataluniak, bere Estatuaren barnean hizkuntza ofizial bat izan du, katalana. Erdi Arotik XVIII. menderaino hori izan da historiaren legea. Areago oraindik: XII. mendean (1137), Aragoeko Koroa Barcelona-ko kontearen burura etortzean, hizkuntza katalana izanen zen Monarkia aragones-katalanarena ere. Erregeen Gortea katalanez mintzatuko da, eta kronikari ofizialek (B. Desclot, R. Muntaner, B. Metge) katalanez idatziko dute.

Birkonkistaren barnean, Erresumaren mugak zabalduz dihoazela, katalana izan zen hegoalde-ekialdeetara hedatutako hizkuntza, València eta Balears osoak katalanduz. Horregatik gogoratu ahal izan da Jaume I. Konkistaria (1208-1276) *configurador del domini lingüístic català* bezala (M. Sanchís Guarner).

Eta zabalkunde demografiko-geografikoarekin batera, lehiakide gabeko ofizialtasunak zekartzan abantail guztiak gozartu zituen hizkuntzak. «Usario diplomatiko, administratibo eta literarioz nobleztaturiko hizkuntza zuen (Erresumak)». «Aragonesa deitu izan den Gantzilerian milaka eta milaka erregistro daude ia oso-osorik dena katalanez idatziak», esaten du, Aragoeko Koroaren katalantasuna frogatuz, Pierre Vilar-ek.

Garai haietako Katalunian, arrotz eta atzerritartzat jotzen da katalanez mintzatzen ez dena.

Kataluniak, Erdi Aroan bertan lortu zuen Estatu-nazio izatea; baina Estatu hura konfederatua zen, Principat, València eta Balears-ek beren aparteko instituzio politikoak zituztela. Hain goiztar sortutako Estatu katalanak, ordea, goiz jasan zuen beherdialdia ere: XV. mendeaz gero, krisiaren zamapean aurkitu zen Erresuma. XVI.ean aurrea hartzen du Gaztelak Penintsulan eta kanpoan, politikan eta kulturean. Literatura katalana isildu egiten da, nahiz eta herri xumeak beti eta edonon katalana erabili, eta bizitza ofizialean ere hizkuntzak bereari eutsi.

Kataluniako «arazoa»

XVII. mendean, Monarkiak ofizialki ateratzen du argitara «problema katalana»:

Tenga Vuestra Majestad por el negocio más importante de su Monarquía el hacerse Rey de España (lehendik Errege zenari esaten zion hori Conde-Duque-ak): *quiero decir, Señor, (...) España al estilo y leyes de Castilla, sin ninguna diferencia.*

Testuinguru horretan piztu zen *Guerra dels Segadors* delakoa, eta, Félix Cucurull-ek frogatu duenez, urte haietan jar daitezke abertzaletasun modernoaren sorburuak. Sasoiko bidariek *katalanen talde-urgilua* aipatzen dute.

XVII. mendeko beldurrak

XVII.ean, Kataluniaren aldeko apologia eta izkribuetan puntu jakin batzu errepikatzen dira pentsamolde baten agergarri be-

zala: 1) Katalanek historian egindako egitada harmatu miresgarriak gogoratzen dira, 2) Libertateen babesleku eta aurrelari bezala ikusten da Katalunia, 3) Gaztelarekiko ezinikusi eta higuina nabari da (*Pedra de toch* idazkian, esate baterako), 4) Frantsesen inperialismoa ere bortizki salatzen da. Nazioaren borroka politiko honetan ez da ahanzten hizkuntzaren defentsa politikoa.

1640an, *Proclamación Católica* bat zuzentzen dio Generalitat-ak Errege-ri. Kataluniaren Konstituzioa bihotz berroz defendatzen da agirian. Gaztelauek hizkuntza katalanari egiten dizkioten irainak aipatzen zaizkio Felipe IV.ari. Erregeri berari ere beldurrik gabe, ausartki, egiten zaio hizkuntzaren apologia, esatekoak esanez eta garai hobeagoak aututara ekarriz:

Y así dice Zurita que era tan general la afición de los Reyes, que desde que sucedieron al Conde de Barcelona siempre tuvieron por naturaleza y antiquísima patria a Cataluña, y en todo conformaron con sus leyes y costumbres, y la lengua de que usaban era la Catalana, y de ella fue toda la cortesania, de que se preciaban en aquellos tiempos. Todas las ordenaciones, así de la casa real como otras, eran en Catalán: las proposiciones que hacían los señores Reyes en las Cortes, o Parlamentos, aunque se hicieren a los tres Reynos, eran en Catalán.

Gerrate nazional baten ate-atean zeudela (1640) azalduko hizkuntz erreibindikapen horiek, kontzientzia bat agertzen dute. Gaur ere, hizkuntzaren ofizialtasunak eskatzean, horixe bera esan nahi dugu...

II. — Hizkuntza katalana, desofizialdua

«España», ideia berri bat

Politikari haiek ez zebiltzen oker: ongi ikusi zituzten orduko gaixotasunak, eta geroko arriskuak ere. XVIII. mendea, *Guerra de Sucesión* delakoarekin hasi zen Espainian. Kataluniak galtzailearen partiduari segitu zion; egokiera horretaz baliaturik, dinastia borbondarrak gogorki zigortu zuen bere instituzioetan eta naziotasunaren agerpide guztietan. Espainiari kontzeptu berri bat ezartzea erabaki zuen Felipe V. Errege irabazleak. Mende hartaz hitzegitean, instituzioen zentralismoa aipatzen da beti, baina, horren aurretik, Monarkiaren ideia bera (*España*) trukatu nahi da. Guri, eskolaren bidez eta, eman nahi izan zaiguna, XVIII. mendeko lehenen partekoa da (Joan Reglà).

Ideologia politikoaren aldaketaren ondoren, erabilgarriagoa

zen instituzioen tresneria politikoa, Penintsulako nazionalitateen nortasuna irensteko. Ordukoz Euskal Herria salbatu zen, baina ez Katalunia. Hizkuntza ez zen salbuespen bat izango gerrateon-doko errepresio hartan. Dokumentazioak historiariei erakutsi dienez, oso arretaz ikusi zen hizkuntz politika.

Kontseilu zuhurrak: «Ley de Nueva Planta» (1716)

Errege Kontseiluko lehendakari Patiño-k, honela gogoratzen dio Felipe V.ari katalanen atrebentzia:

Son (los catalanes) apasionados de su patria, con tal exceso que *les hace trastornar el uso de la razón, y solamente hablar en lengua nativa.*

Horrelako pentsamoldez eskolatuta, Erregek berak emango dizkie lezioak Katalunia eta Mallorca-ko alkateei (korrejidoreei):

Se procure mañosamente ir introduciendo la lengua castellana en aquellos pueblos... Pondrá el corregidor el mayor cuidado en introducir la lengua castellana, a cuyo fin dará las providencias

Kataluniaren kasuak baditu guretzat zenbait berezitasun ja-kingarri, batez ere «ofizialtasuna/diglosia/ofizialtasuna»-ren zikloa osorik bete zuelako. Ziklo hori, honelako baldintzekin bete zen:

1. Inoiz, mende luzeetan, Erresuma haundi batetako hizkuntza ofizial bakarra izan zen katalana (Erdi Arotik-1716).
2. Politikaren erabaki baten obraz («Ley de Nueva Planta», (1716), katalana ezofizialtasun diglosiko batetara emana izan zen.
3. Zapalkuntzaren ondorioz, ilunaldi ofizial eta literarioa jasan beharko ditu hizkuntzak (1716-1833).
4. «Renaixença»-ren eraginez, politika abertzaleak bereganatu egiten du hizkuntz errebindikapena (1833-1930).
5. Hizkuntzari ofizialtasuna itzuli eta egoera sozio-politiko berria instituzioztatzen zaio (1931-1939).

Prozesua honela laburtzen da: ofizialtasun batetatik ezofizialtasunera kondenaturik, kontzientzia nazional eta politikoak ofizialtasunera itzuliko du, aukera berrian hizkuntzaren politika nazional bat osatuz. Eboluziobide hori ezagutzeko, bi artikulutan emanen ditugu albisteak: lehenengo honetan, XVII. mendetik 1930era artekoa, eta bigarren batetan, Generalitat berrituaren politika.

más templadas y disimuladas, para que se note el efecto, sin que se note el cuidado.

Gerokoak gero, ez zen harri ederra Kataluniako hizkuntza ofizial ohiarena! Harma bidez irabazitako eskubidearekin (*que aquel gran orgullo está abatido y respetan ya los preceptos de V.M. y la Justicia, no por afecto y amor sino por la fuerza superior de las armas*, esaten zion Patiño ministroak Erregeri), gaztelania inposatu zitzaion Administrazioari Katalunian. «Nueva Planta» delako legeak birmoldatuko zituen han Estatua eta kultura.

Erasoetan, bizi mina

Gerrate galduaren ondotik, hizkuntza eta beronen azalpenak zigortuak izan ziren mundu ofizialean. Baina ez da berehala galtzen askatasunaren itxaropena, eta Kataluniaren nortasun politikoa salbatzeko, plangintza bat aurkeztu zen 1734ean.

Hizkuntzaren arazoa ez da falta, helburu politikoen artean. Baldiri *Reixach* da katalanari lehenengotasuna eman behar zaiola uste duenetako bat, eta bereziki arrazoi pedagogikoak aipatuz: *Instruccions per l'ensenyança de minyons* du bere liburua (1749). Pere Salses i Trilla-ientzat, tradizio historiko eta kultural galezina du katalanak, eta nornahiri ere erro historiko aberatsak ematen dizkio; eta etorkizuna ez galtzeko ere, premiazkoa da hizkuntzari eustea (1754).

1760aren ingururako, desagertua da *Guerra de Sucesión* hura eta haren berehalako ondorioak eraman behar izan zituen belaunaldia. Gizon berriak eta denbora berriak datoz bizitza politikora. Erremediorik gabe, zentralismo borbonikoak sortu duen mundura egokituta lanegin nahi du jende berriak; baina, hala ere, ez zaio eskas nazionalitateen zentzua. Urte hartantxe zuzentzen diote Erregeri agiri luze bat deputatuek; *Representació* eta *Memorial de greuges* ere deitu izan da berau. Zaragoza, Barcelona, València eta Mallorca-ko deputatuek, Erresumaren errei-bindikapenen zerrenda ematen dute. Borbondarrei leialtasuna eskaintzen zaie, baina sistema zentralistak dituen akatsak ezin dira ahanzi. Administrazioarako eta eliz bizitzarako funtzionari katalanak eskatzen dira *Memorial*-ean. Ameriketako indioei lege askotan aitortzen zaien eskubidea (misiolari hizkuntz jakitunak bidaltzea, alegia) ezingo zaie ukatu katalanez mintzatzen diren menpekoei, gogoratzen du dokumentuak.

Katalana, kultura ofizialetik at

1752an jaiotzen da *Real Academia de Bellas Artes de Barcelona*. Mende hartako Akademia «real» guztietan bezala, han ere gaztelaniak izan beharko du nagusi; baina bertako gizonak ezin dute katalana erabat baztertu, inguruan ez baitzen falta bestela salatariren bat. Hain zuzen elkartearen lehen lehendakariak moldatuko ditu katalanaren arau ortografikoak, eta geroxeago (1769), hiztegi katalan konplitu baten asmoa agertzen da Akademiaren barnean.

Ahalegin hauen fruitu bezala ezagutzen dira F. Amat-en hiztegia eta beronen iloben lanak eta baita geroago aipatuko den Ballot-en liburua ere.

Baina han-hemenka ikusten ditugun hizkuntz lanek apenas duten kultur ingurune ofizial eskolatuaren eraginik. Herriaren ezpainetan dago hizkuntza, eta mende honetantxe irabazten du zabalpen eta finkapenik haundiena kultura herritarrak (herri kantek, esaera zaharrek, etab.). Hala ere, eskolatuentzat eta borbondar egoera politikora egokitu beharra sentitzen zutenentzat, galdua da hizkuntzaren etorkizun nazional eta kulturalaren itxaropena. Eta, mingarriagoa zena, eritzi honetako gizon sonatu batzu, Katalunia biziki maite zutenetakoak ziren.

Antoni Capmany (1742-1812) gogoratuko dut hemen. Kataluniako ilustratuen artean toki nabaria ukan zuen (Capmany-ek; jakitez eta funtzionari bezala, Madrileko Gobernuaren konfiantza bazuen, Kataluniari ere, bere gisara, leial izanik. Ekonomista, historialari, deputatu eta akademiko, dena batera izan zen Capmany.

Capmany paradoxa bat da Kataluniako abertzaletasunaren barnean. Bi liburukote eder eman zituen, Kataluniako Historiari eta berezikiago hango itsas bizitzaren Historiari eskainiak. «Historia ekonomikoaren lehengotako eredu bat ezezik, kontzientzia historiko katalanaren iratzarle» ere izan zen Capmany bere *Memorias históricas* obrarekin (1779-1792).

Balio horik aitortuz ere, gure arlorako badu Caymany-ek bestelako zerbait. Nazioaren Historia, ekintza berriz berregitera deitzen zuen historialariak ez zuen beretzat hartu hizkuntzaren borroka. Kultura moderno berrirako, ezin erabilia zela katalana, uste zuen Capmany-ek. Historia aldetik. «Renaixença»ren oin harriak jartzen ari zen gizona ez zen hizkuntzaren ahalmenaz jabetu. Alde honetatik, mundu ofizialaren oihartzuna gertatu zen Antoni Capmany.

Antoni Comas-ek eman du mende honetako hizkuntz kontzientziaren berri. Gizaldiaren azkenetan, nabariago agertzen zaigu mundu ofizialak utzitako hizkuntza nazionalaren gogoia. XVIII. mendeko historia tristeak ez du esan nahi tradizio zaharrek erabateko etenik gertatu denik. Dirudenez, politikaren kontra, gorde egiten dute iraganaldietako historiak eta kulturak hizkuntzarekiko lotura. Mintzairaren kontzientzia nazionala ez zen osorik galdu. Adibidez, bazen aipatutako Akademiaren elebitasuna salatzen zuen talderik, hain zuzen, zerabil-tzan kultur zereginetarako Akademian katalana bakarrik erabil zedila eskatuz.

Alderantziz, ezaguna dugu mundu ofizial hartan itxurazkoa zenez, katalan hizkuntzarekiko atxekimendua belzten zuenen bat:

Esta manía han fomentado ciertos literatos de gran opinión en este país. Uno de ellos, que murió hace poco, al catalán que le escribía en castellano no contestaba ni aun leía la carta, *esaten du Jaime Villanueva-k* (1806).

Frantziatik salbaidia?

Orohar, XVIII. mendea lozorro batetan isildu bazen ere (orain artean hala ikusi izan du bederen kultura katalanaren historiografiak), entzun zen minoria baten kontzientziaren ahotsa. Baiona-rako deputatuei (1808), hizkuntzaren dimentsio politikoa gogora erazi zien Barcelonako Udalak, eta Independentzi Gerratean, Frantziari lot zekiokkeen Kataluniarentzat, *Tomás Puig*-ek katalana proposatzen du hizkuntza berri ofizialtzat:

Dans cette province, l'on ne parle que l'idiome catalan et point du tout la langue espagnole; non obstant que le gouvernement antérieur eut pris toutes les mesures pour obtenir cette avantage. Sous une autre considération, il ne serait pas régulier, que la Catalogne, formant un Gouvernement séparé du reste de l'Espagne, adoptat la langue d'une Nation que ne la domine plus (1810).

Geroago hain sarritan aurkituko dugun independentismoaren eta hizkuntzaren arteko loturak agertzen zaizkigu hemen. Bestalde, egokia zen frantsesei honelako hizkuntz politikako gorabeherak aurrean jartzea, Frantziako Iraultzak ere ez baitzituen ahantzi hizkuntzen esanahi politikoak, eta preseski hilabete haietantxe Napoleon-ek ezarritako *Govern de Catalunya*-ren inguruan katalanari egoera ofizialago bat emateko asmoa sumatzen baitzen. Esate baterako, Diario de Barcelona hura izenez aldatuz, *Diari de Barcelona i del Govern de Catalunya* bilakatzen da. Katalunia Napoleon-en Inperioari lotzean ere, errespetoz jokatu nahi da

katalanekin. Baró de Gérando kolaborazionistak, frantses kodi-goak katalanez ematea eskatzen du, ez gaztelaniaz ezartzea.

Baina ezin eguntxinta batetan isildu lehendik zetozen bidegabekeriek sortutako errezeloak. Frantsesen eta Kataluniako frantsestuena berrikitako gogoak gorabehera, katalanek ez zituzten maite haik, gaztelauak maite ez zituzten bezalaxe. Ongi oharturik zeuden frantsesak berak ere horretaz, Foy jeneralak idazten zuenaren arauera: «beren hauzoko frantsesekiko halako gorrotorik ez die inongo gurasok hurrei hemen bezala ematen». Eta Foy-k Frantziak azken mendeetan egindako laidoak dakartza aiputara. Bestalde, Frantziak lapurtu egin zuen Roselló katalana Piriniotako Bakezkoan (1659), eta 1700ean, ofizialki ezarri zitzaion hizkuntza frantsesa, gainera.

Bai Frantziaren eta bai Espainiaren kontra, erne zegoen katalan askoren bizi nahia. Cádiz-en Espainiaren barruti banaketa berria proposatzean, deputatu batek, hizkuntza ere aipatuz, zioena dator burutara: *nadie es capaz de hacer que los catalanes se olviden que son catalanes* (Felip Aner d'Esteve, 1811).

III. — Bizkunde baten bila (1814-1874)

Ukitzera goazen epe historiko hau, XVIII. mendeko gualdialaren eta XIX.aren azkenetako formulazio politiko abertzale argiaren tartean kokatzen da. Usario zaharrari jarraikiz, Aribau-ren *Oda a la Pàtria* olerkiarekin hasiko litzateke «Renaixença»-ren abiapuntu muga-mugatua; baina gaurregun badakigu mugimendu haren sorburuak gogoroko iturri ugarietatik datozena.

XVIII. mendean erroak

XVIII. mendeko politika borbondarrak, gaztelautu egin nahi izan zuen Katalunia; baina, desofizialtasunaren isilpean kuxkurtuz, intxaurren ondorengo intxaurren eman zituen, ez gaztainak. Literatura katalan ofiziala isilerazi zen, eta, hala ere, herriak bereari eutsi zion. Herri katalan mintzatzailerak, betidaniko hizkuntza zuen bizirik, eta mende hartan inoiz baino herri literaturara biziagoa eman zuen. Herritiko oparotasun hau da, *Manifest de la Cultura Catalana*-k (1977) gogoratu duenez, «Renaixença»-ren zutabe bat. Bigarrena, burgesiak orduan sortutako kultur instituzioen gain-egitura eragingarria izanen da.

Gizarte oinharriak

Laborariek, beren bizimolde eta pentsaera tinkatueta daude, maite dituzte aintzinako foruak, biziki sentitzen dute Katalunia. Hizkuntza ere erabat beren baitan daukate. Karlismoak, hauen artean ditu jarraitzailerik gehienak.

Kataluniako *burgesia haundia* katalanista gertatu zen, ondasunak salbu baldin baziren bederen. Deretxo katalana bihotzez defendatu zuen, eta burgesia honen eskuetatik birjaio ziren *Jocs Florals* deituak (1859). Industri ekonomian zeukan bere boterea, eta 1868ko Iraultza izan zen berorren garaitzapenik haundiena. Zoritxarrez, eta garaitzaileen kezketan, urte haietantxe (1868-1874) ikusi ahal izan zen Kataluniako beste indar sozialak nondik nora joan zitezkeen.

Burgesia ttipia, menstrualgoa eta proletalgoa gizarte osoaren berrikuntza sozial baten atzetik dabilta, eta horien idealen azalpen politikoak federalismoan haragi egingo dira. Jende moeta hau izanen da 1868-1874etan bortizkiago borrokatuko dena, eta garai errebolitari haictan itxaropena itzaliko zaiona ere. Borbon-darren Monarkia erreberrituan, barneko homogeneotasuna faltako zaio talde sozial honi; baina 1868an —eta aurretik ez dago zer esanik— federalismo demokratikoa, errepublikazaletasun borrokari batekin nahasia, aski zen politik progresismoa birresteko.

XIX. mendeko urte hauetan, bi korronte nagusitan agertzen da Kataluniaren defentsa: *karlismoan* eta *federalismoan*. Cucurull-ek dioenez, 1898ko krisialdira iritsi gabe ere, katalanismo politikoak formulazio teoriko heldu bat lortua zuen. Federalismoan gertatu zen hau, batez ere. Formulazio horietan nazionalismo katalan bat izatera iritsi ez arren, federalismo radikalaren azpian dabilen ideia Kataluniaren autodeterminazioarena da.

Abertzaletasunaren barne egitura

Zer zen, ba, abertzaletasunera zihoan mugimendu hura? Gizarte osoaren baitandik zetorren mugida zen: aldian aldiko gerrateek ezin izan zuten geldierazi; gainditu egiten zituen barneko eta kanpotik ezarritako kontraesanak. Gizarte industrial modernoak ito ez, baizik bizkortu egiten zuen korronte berriaren abiada; hainbat taldek, dinamika jauzkorrez burutatuko lan, borroka eta gogetek kontzientzia nazionala erdituko zuten. Ez zen amets baten asmakeria; betidanik izan bazen identitate bat, herri osoaren ahalginen poderioz, berriz ere argitan jartzea baizik.

Katalanismoaren etxagintzan lau zutabe nagusi ikusi izan dira:

1) Protekzionismoaren aldeko mugimendua, 2) Federalismo politikoa, 3) Tradizionalismoa, eta 4) Kultur Bizkundera. Protekzionismoaren borrokak, bizkortu egiten du Kataluniaren nortasunaz burgesiak duen kontzientzia. Tradizionalismoak —politikoa, juridikoa, historikoa— hainbat egintza haundi eta bizimolde amesturen oroitzapena dakar. Federalismoa, ostera, egitura politiko modernoaren bilaketan ari da, aspertzeke; baina, dena den, federalismo katalanak bi osakai ditu: bata, herri eta gizon orori zor zaion libertate mina da, eta bestea, Kataluniaren Historiatik datozen oihartzun federal eta konfederalak. Federalismoak, abertzaletasunaren aurreko ezker politikoa esan nahi zuen, tradizionalismoak (eta ez naiz karlismoarekin bakarrik ari) eskuin politikoa adierazten zuen bezala.

Eskutan dugun garaialdia gainezkatuz, II. Errepublikaraino luzatu nahi bagenu, izen batzu ere eman litezke bi korronteetan: ezkerrean, Pi i Margall, Roca i Farreras, Almirall, Martí i Julià, Macià; eskuinean, berriz, Lluç i Ors, Durán i Bas, Torras i Bages, Estelrich, Prat de la Riba, Cambó. Honela, nahasian, esanahi haundirik ez dutela ere, komeni da gogoan hartzea.

Renaixença, 1833tik aurrera

Hertsiki hartuta, «Renaixença» hitzaz XIX. mendeko kultur mugimendu katalana izendatu ohi da. Beronen barruan lehen lekua ukan zuten hizkuntzak eta literaturak. Hizkuntz bizkunderak eman zion, gainera, askoren ustetan, oin-harririk funtzekoena.

Bizkunde haren baitan bi zio borrokari sumatzen dira: tradizionalismoak dakartzan *Deretxo eta Histori* zaletasuna eta haietatik jasotako argibideak, eta «Renaixença»ren *hizkuntz zaletasuna*. Biotatik zetozen ideiak, ametsak eta helburuak politikara iraganeko dira, eta, orduan, aginte politikoa bilatuko dute Kataluniarentzat. Azkenean, mugimenduak ikasi du herriaren geroa politikan irabazi beharko dela.

Hizkuntzarekiko kontzientzia nazionala mendearen bigarren partean lortuko da, bere osotasunean behintzat, baina lehenagotik ere baditugu sentiera berriaren zantzuak. Haatik, 1841era arte sakabanatuak eta batasun eta koordinapenik gabeak agertuko dira hizkuntza katalanaren berrikuntz agerpenak.

1814ean, hain zuzen bakearekin batera eta epe berriaren hasieran, ematen du argitara Josep Pau Ballot-ek bere *Gramàtica i apologia de la Llengua Catalana*: «Katalunia deritzan aberri honetan jaioa eta hazia den liburu honek ez du hizkuntzaz alda-

tua agertu nahi...» dio autoreak. Capmany-en ideologia etsitik beste muturrean aurkitzen da Ballot; horregatik idazten du, noski, apologia hau, Capmany-ek sekula egingo ez zuen zerbait:

Gure hizkuntzak zernahi esplika dezake bere hitzez, giza adimenak sor lezakeen oro.

1833-1841 urteetako bihurgunea

Baina oraindik ere gutiengo batena zen 1814ean eritzi baikor hau. Horregatik, Aribau-ren *Oda* kaleratzean, jendea hunkiturik sentitzen da, ez baitzen halako ahalbiderik barruntatzen ofizialki literaturarik gabeko hizkuntza hartan. 1839ra arte ez da argitaratuko literaturaldi berriko lehen poesi liburua; Miquel Anton Martí-rena zen berau. Nazionalitateen Bizkunde hauetan gertatu ohi denez, olerkiak garrantzi handia du, eta egunkarietan ere hasi dira poemak ematen. Joaquim *Rubió i Ors*-ek 1839tik hasita emango ditu bereak Brusi-n; olerkiok liburu batetan bildurik agertuko dira 1841ean. Aipatu urte berean, hau da 1839an, mirakulu bat bezala, lau hiztegi inprimatuko dira (zenbat kidetasun euskal mugimenduarekin!). Argi dago bizkor dabiltzala hizkuntzari bideak ireki nahi dizkiotenak.

Momentu hartako haundiena Rubió i Ors dugu literatur Bizkunderan; *Lo Gaiter del Llobregat* firmarekin ematen zituen bere lanak. Unibertsitateko gizona zen, Valladolid-en eta Barcelona-n katedrak izango zituen. Rubió honek garbiki ikusten zuen hizkuntzaren balio nazionala eta, ondorioz, politikoa.

Fa un segle i quart, en lo assalt de Barcelona (setembre de 1714), que nostres avis batalaren catorze hores seguides en defensa de llurs antics privilegis, (...), *per poder transmetre a llurs nêts l'herència i lo idioma* (...); i no obstant (...), sos decendents (...) s'avergoneixen de què se los sorprengue parlant en català, com a un criminal a qui atrapen en lo acte. *Mes açó cessarà, al menos s'ho promet així* lo autor d'estes poesies. Catalunya pot aspirar encara a la independència, no a la política (...); però sí a la literatura, fins a la qual no s'estén ni se pot estendre la política de l'equilibri.

Ikusten da, beraz, kultur eta literatur gizonek berek eraman nahi dutela hizkuntzaren arazoa politik mundura. Idazleek amesten zituzten helmugak politikoen programa eta ekintzara iragaitan, hizkuntz erreibindikapenak bere formulazio politikoa lortuko du.

Alderdi politikoak eta hizkuntza (1814-1874)

Hastapenetan, bazirudien *karlismoa* zela, Kataluniaren erreibindikapenatarako egokien kokatua zegoena, eta inoiz esan ere egin da alderdi politiko horrek, edo, hobeki, mugimendu horrek, eman ote zion Kataluniari bere abertzaletasunerako formula biderik garrantzizkoena. Gaur, ordea, badakigu, karlismoak ez zuela federalismoak adineko eragimenik izan. Hala ere, ezin ukatua da karlismoak *Principat*-aren barnean izan zuen erakarmena, batez ere inguruan nekazalgo katalan hiztuna bilduz.

Karlismoaren abotsa

Esan beharra dago, karlismoaren dei ofizialak askotan gaztelaniaz zabaltzen zirela, hala nola Don Karlos eta Don Alfonso-k azken karlistadako manifestuetan, edota zenbait instituzio karlistetatik sortu ziren agirietan, *Diputació de Catalunya*-k eta *Diputació a Guerra*-k emandakoetan adibidez. Eskuratu ahal izan ditudan dokumentu karlistetan, deus guti agertzen da hizkuntzari buruzko kontzientziarik. Aipa dezadan aurkitutakoa.

1872an, Karlos VII.ak emandako Foruetan ez da hizkuntz politikarik zuzenean haintzakotzat hartzen; baina funtzionariak sorterriz katalanak izatea eskatzen da. Urte berean, propaganda-rako liburuxka batetan, bai, hizkuntzari halako garrantzi retoriko bat ematen zaio: «katalana naiz, eta amagandik jasotako hizkuntza mintzatzeko hartzen dut luma (...), Napoleon-en kontra gudakatu ziren asaben hizkuntza bera. Argi hitzeginen dizuet, beraz, argi eta katalanez. (...). Zein probetxu ekarri digu Gaztelarekin bateratzeak? (...). Gure asabek ez zuten ezagutu gaztelania». Liburuxka karlista honek, lehenagoko katalanek gaztelaniari buruz zuten eritzi gaiztoa gogoratzen du: Gaztelako hizkuntza, zergalarien itsuskeriekin nahasten zuten haiek, *llengua de catastro* deitu ohi zioten. Bukatzeko, Sant Vicenç Ferrer-en esaldi batekin lotzen du idazleak Kataluniaren arrenkura: *Vindrán los lleons de Castilla i et xuclaran la sang* (etorriko dira Gaztelako leoiak eta xurgatuko dizute, bai, odola).

Abertzalego eskertiarra

Abertzalego ezkertiarrek eman zion urteotan hizkuntz erreibindikapenari agerpide garbiago eta helduagoa. Ezker politiko hau, batez ere, federalismoak betetzen zuen orduan. Federalismo katalanak —eta hau geroago nabarituko da bereziki— aparteko nortasuna zuen Espainiakoaren barnean. Kataluniako tradizioak

eta historiak erro propioak eman ziezaizkioketen hango federalismoari. Orain ikusten ari garen garaiaren buruan, botere politikoa federalismoaren eskuetara etortzean, Madrilgo federalismoarentzat unitarismoa izanen da tentazioa, eta federalismo katalanik ezingo du horrelako itxuragabekeriarik ulertu. Abertzaletasun nazionalista jaio aurreko naziotasun katalanaren ahotsa dirudi federalista katalan haien borrokak. Horregatik ere, federalismoak katalanez emanen ditu bere agiriak.

Korronte hirukoitza aurkitzen dugu federalismo honetan: 1) *Intransigente* deitua eta alderdiaren gehiengoa berekin zuena (*tot o res*, dena ala deusez alegia, da horien ikurra, eta 1873an *Estat Català*-ren talde politikoan bilduko zen). 2) *Posibilista* da alderdiko bigarren korrontea: helburuetan bat zetorren lehenengoarekin, baina prest zegoen politikak zekartzan aldiak aldiko akordiotara iristeko ere. 3) *Soziala* da hirugarren talde federalista, eta Cucurull-ek balio eta gaurkotasun bereziak aurkitzen dizkio, hain zuzen kritika soziala eta eskakizun nazionalak biltzen zituelako.

Antoni Puigblanc da federalismoan hizkuntzaren eskakizuna oso garaiz (1835) politikara ere eramango duena: gaztelaniari Estatu osokoa izateko gaitasuna aitortzen dio, baina *sin perjuicio de cultivar por su particular gusto, y para más radicar en sí el amor natal y a sus leyes el cántabro o vascuence los cántabros, y el catalán o lemosino los catalanes*. (Libertate hori ederra da, noski, baina lehiakide den hizkuntzak askatasun hori *bakarrik* darabilenean da ederra. Bestela, libertatea ez baita libertate ere).

El Nuevo Vapor aldizkariak (progresista zen denboraldi batetan, 1835ean) libertatea ere Estatutik babestu beharraren premia barruntatzen zuen, hain zuzen Estatuaren hizkuntz neutraltasunean fede haundirik ez zuelako, nonbait. Estatu funtzionarioak hizkuntz prestamenik gabe, nonahi eta edonon barreiatzeak ondorio gaiztoak zekartzan, haren ustez, Kataluniarentzat: izan ere, *su* (funtzionarioen) *ninguna inteligencia del hermoso idioma en que nos expresamos vulgarmente, les infunde una animadversión que, mal disimulada, acarrea al país un sentimiento igual para con ellos*. «Laissez faire» soilak konpondu ez, baizik ozpin-du egiten zuen giroa, berehala jarrera politiko jakin batzu sortuz.

Guardiola-rentzat, hizkuntza ez da harreman politikoak puntzunia ditzakeen tresna bakarrik; horretaz gain, naziotasunaren osakaia da deputatu liberal federalista honentzat. Mintzaira tar-teko dela, frogatuko du Kataluniaren nortasun nazionala, eta horregatik ukatuko dio Espainiari bere naziotasuna: *España*

no es, en riguroso y buen sentido de la palabra, una sola nación, sino un haz de naciones (1851).

Illes i Vidal-ek areago joko du: Kataluniaren egoera kolonia batena da eta koloriatasun horren agergerri bat zera da, Gaztelak hizkuntzarekin egiten duena alegia: Gaztela da *la nacionalidad que da lenguaje a las leyes y a la literatura*. *Illes*-ek, Estatu liberala itxuragabeko hautabide batetara dihoala uste du: Kataluniaren historia, legeria eta hizkuntza separatismoaren jragile baldin badira (eta Gaztelak darabilen Estatuak pentsamolde horixe du),

¿cómo no se ha pensado combatir todas estas causas de rebelión, o de poco apego de nacionalidad española, y no se ha propuesto prohibir que hable el pueblo el único lenguaje que conoce, y mandar quemar anales y archivos, y derogar pronto, instantáneamente, la legislación catalana?

Ez du errealitatea aitortu nahi Estatu espainol erdirakoiak, eta gogozko itsumen horrek daramake zentzugabekeria horietara. *Pi i Margall*-ek, federalismoaren teoriko haundiak, esan zuenaren arauera (1854): herriek hor dauzkate beren historia, hizkuntza eta literatura, eta maiz berorietan txertatuta elkarrenganaiko ezin ikusia eta gorrotoa. Egia hori ezagutu nahi ez duenak, berriz ere harri berean egingo du oztopo. Eta, horregatik, premiazkoa da herri bakoitzari bere trataera ematea.

Urte haietan, gerora idazle eta politikoko kontserbakorra izanzen zen *Mañé i Flaquer* herbestera joango da argitarabide eske, Madril-en agintean zegoen Gobernu progresistaren kontra (1855), Katalunia suharki defendatzeko. Espainia, nazionalitate elkarte bat da, bakoitzak du bere hizkuntza, eta unitarismo politikoak antzutu baizik ez du egin elkarte hori: Monarkiaren aginte nahiak kolonia bihurtu ditu probintziak. Katalunia harro-harro dago bere hizkuntzaz Erdi Arotik hasita, eta Estatuak ezingo du hori ahan-tzi. Geroago ez bezalako ausardia agertzen du *Mañé*-k urte haue-tako esaldi eta erasoetan.

Mañé-ren bide beretsua egin zuen Victor *Balaguer*-ek ere, gaztezero bero batetatik zahartzero epelago batetaraino. 1856an, Espainiaren nazio ariztasuna ezin ulertua salatzen du isabeldar Monarkiagan, eta aurrera joaz, Kataluniaren historia nola bortxatu izan den gogoratzen zuen: *El Principado era una especie de colonia española* idazten du, XVIII. mendeko borbondarren politika ahotan duela. *Balaguer* da bere belaunaldiko idazlerik eginetakoa eta *Jocs Florals* haik sortu eta irabazi ere egin zituenetako bat.

XIX. mendeko Katalunia, katalanez mintzatzen zen osoki: haurtzarotik zahartzarora, familian eta lantegian; hitzegin eta pentsatu, katalanez egiten zuen herri hark. Joan Corona-k idazten zuen bezala (1859), gaztelaniaz egitean, itzulpen lanetan ari zen katalana, eta *oso-zaila* zen hori. Eta hain zaila, zeren *gaztelania herbesteko hizkuntza atzerritar bat bezalaxe ikasi behar izaten bait dugu*. Eta artikulua honela bukatzen zuen: *és sant l'amor a la Pàtria, y la nostra Pàtria és Catalunya*.

1859an berriztatu ziren *Jocs Florals* haietaz gero, urteoro errepikatzen ziren Marià Aguiló-ren kritikak: «Ez, ez du inork sekula herri bati bere hizkuntzaren defentsa bideak eragozteko arrazoirik». Asmo berari eutsiz, *Serraclara*-k, Deretxoa hizkuntzaren zerbitzutan jar zedila eskatzen zion Comitè Republicà Democràtic Federal de Barcelona-ri, *El Estado Catalán* aldizkarian (1870).

Federalismoaren barnean, etorkizunaren zantzuak hobekitzoen usnatu zituenetako bat, Narcís Roca i Farreras (1830-1891) izan zen. Aipagarria da, hemen darabilgun epearen barruan, *La Independencia* egunkarian argitaratutako lan luze bat. Eguneroko hau eklektikoa zen, posibilisten eta intransigenteen eskuetan erori gabe. Hasieratik bertatik zegoen hizkuntz arazoaz kezkatu. Gobernuak, katalanez behingoz, dei bat (soldaduskarakoa) egin zuenean, hala zioen egunerokoak (1872):

¿Por qué el Gobierno no sigue esta misma costumbre en todas cuantas disposiciones publicadas, mucho más interesantes para la generalidad de los ciudadanos, que las que se refieren a un mero alistamiento voluntario? ¿Es que el Gobierno sólo recuerda que la lengua catalana se habla en dilatadas provincias españolas cuando necesita comprar la sangre de sus hijos por un puñado de oro? En este caso Cataluña sabrá comprender los móviles de su aviesa conducta.

Koherentzia eta zolitasun haundiko idazlea izan zen Roca i Farreras. Denbora berean, katalanista eta sozialista aitortu zuen bere burua. Beti ere agintetik urrun ibili zen, abertzaletasunaren profetatza garbia eginez. Tortosako akordiora (1868) iritsi baino askoz aurretik, Països Catalans guztien batasunaz hitzegin du, hizkuntza bakarraren lurraldeen batasunaz, alegia.

Alderdi eta gizon politikoen hizkuntzari buruzko defentsak, lehentxeago nahiz geroxeago, lege-erabakietara heldu behar du. Hori gertatu zen *Centre Catalanista*-k Kataluniako deputatuei zuzendu zien agirian (1873), Konstituziora eta lege apalagoetara ere katalanaren ofizialtasuna eraman zedila eskatzean:

que el idioma de cada provincia sea declarado oficial dentro de su Gobierno especial, sin perjuicio de convenir en una que represente el poder central.

1814-1874etako urte hauetatik jasotzen ditugun testigantza hauk laster aberats litezke oraindik, baina gera bedi oraingoz bere horretan, agian aski baitira kontzientzia politiko-linguistikoko baten lehen urratsak erakusteko. Zalantzarik gabe, literatur Bizkundean murgilduta ari ziren gizonek ukan zuten lehen hitza; berorien ondotik, errebindikapen bera ikusi da politikoaren baitan. Argitasun distiratsua aurkituko du egunsenti honek, «Renaixença»ren bihotzera sartzean.

IV. — «Renaixença» eta hizkuntzaren balioa

Katalanismoaren barnean, «Renaixença»k deus ekarri baldin bazuen, hizkuntzaren balioztapena izan zen hori, bai intelektuaren aldetik eta baita politikoengandik ere. Ikus ditzagun idazleen adibide batzu.

Oda-rekin, hala esan genezake, jendeak erreparatu egiten du: katalana baliozkoa da, ba, esaten du jendeak bere golgorako. 1839-1841etan pauso berri bat ematen da: Rubió i Ors-engandik aitoren bat jasotzen dugu; hizkuntzaren balio estetikoa ikusten du poeta honek: *nadie tenía confianza en la eficacia estética del idioma* (komentatzen du beste Rubió batek): *este fue el único paladín durante mucho tiempo de que podía y debía cultivarse la lengua catalana*, dio Parpal-ek. Beraz, ez da egin litekeena bakarrik, egin behar dena ere bai.

Literaturako ideia politikoak

Literatura herrikoiaren (Pitarra, Almirall, etab.) eta jantziagoaren lehiaketa gizatxar baten ondoren, kontrajarriak egondako joerak bateratu egin ziren, guztien artean teatroa berriztatuz. Teatro hau politikoki ere arriskutsua bilakatu zen nonbait, katalanez idatzitako antzerkiak debekatu egin baitzituen Gobernuak 1867an. Ez zion mesede txarra egin debeku hark literatur mugimendu osoari!

Hizkuntzarekiko kontzientzia politiko-nazionala ez da berehala argitzen. Milà-rentzat, oso beranduago ere (1859), *Jocs Florals* berrituek *babeslekua* izan behar zuten hizkuntzarentzat: *gutierrez aterpe bat*. Akademi lan aseptiko eta serioa, alegia. Han, ordea, hizkuntza bera zen benetan politikoa, eta, Verdaguer-en *L-Atlán-*

tida jaio zenean (1877), literatur lan soil batek ukan ohi ez duen harrera ona aurkitu zuen gizartean. Hizkuntza baztertu eta literatura zanpatuaren garaipenak, herriaren garaipenak ziren. Horregatik, poeta bera ere politiko bilakatzen zen hizkuntzarekin batera: *El poeta catalán descendió de la montaña a la ciudad cantando su poema, y nuestra lengua volvió a existir viva y completa, popular y literaria en una pieza* (Maragall). Herriaren beraren izanmodu propioa sentitzen zen obra poetikoetan ere. »Hizkuntza gordetzea, aberriaren sortetxea gordetzea da» zioen Jaume Collell-ek (1887).

Lorpen literario hauek ausardia berria ematen zieten katalan ekintzaileei. Egun batez, Barcelona-ko Ateneoan lehendakari berriak katalanez ekin zion hitzaldiari. Ez zen halakorik espero, eta entzuleek txundituta eta irainduta nonbait, ez zuten onhartu atrebentzia hura. Hala ere, zetozen aldaketan indarraz ohartuki, ez zuen amor eman Angel *Guimerà* lehendakariak.

Etxe barruko erasoek ezezik, kanpokoek ere hestualdiak pasa arazi zituzten, baina hizkuntzaren balioaz jabetzen lagundu zuten haiek ere. *Narcís Oller*-en *Memories literàries* liburuan ikus liteke kanpoko eritzi eta kritikek nola kontzientziatu zituzten idazle katalanak.

«Renaixença»ko idazlanek lortu ere egin zuten oihartzun onik Espainiako idazle gorenen artean: Pereda-k, Menéndez Pelayo-k, Pardo Bazán-ek, Valera-k, Clarín-ek eta Benavente-k go-raipatu baizik ez zuten egin, esate baterako, Oller-en nobela. Inoiz gazteleratu ere egin zituzten obra haik. Zalantzarik gabe, kanpotarren kritika cnak adorea ematen zien Kataluniako luma gizoniei. Dena den, tartean ibili zen hizkuntzaren arazoa, ez nobelística eta estetikarena soilik.

Pérez Galdós oso gogorra agertzen da bere eritzietan, beste eskutitz-lagunak ez bezala. Ez du «Renaixença»ren zentzua uler-tzen; baliozko gizon horiek gaztelanira jo beharko lukete. Honela idazten zion Oller-i:

No puede Ud. figurarse el desconsuelo que siento al ver un novelista de sus dotes, realmente excepcionales, escribiendo en lengua distinta del español, que es, no lo dude Ud., la lengua de las lenguas... La admiración que siento por Ud. es bastante grande para hacerme desafiar las asperezas de una lengua cuyas bellezas no entiendo y cuya resurrección como lengua literaria no me explico... El castellano es la lengua de los dioses... el catalán, por lo poco que yo entiendo de él, no tiene construcción propia.

Azken buruan, alde nahiz kontra dabiltzanek —bakoitzak

bere gisara— eztenkatu baino ez dute egiten aintzina dihoan mugimendua, kontzientziapena. Hauxe bera esaten zuen Estelrich-ek Joan Magarall-i buruz, hau da, hizkuntzaren katalantasun politikoa agian inork baino hobekiago ulertu zuen gizonari buruz:

Inconscientemente o no, a pesar de su temperamento recluso, él fue la voz de su tierra... Le parecía en las grandes jornadas, llevar Cataluña encendida dentro de su pecho.

Maragall-en teoria estetikoek («la paraula viva»), hizkuntzaren inguruan hartzen dute beren gorputz politikoa. Nazioa eta hizkuntza hertsiki elkarrekin bizi dira:

La nación es la lengua. No digo que el Estado, ni que la Patria es la lengua; digo la nación, es decir, lo nativo social, el espíritu del pueblo.

Maragall hau, azterketa honen hasieran aipatutakoa bera da. Unamuno-k ere ezin zuen ulertu hizkuntzaren «izpiritua», giza-banakoaren baitan ezezik, kolektibitate oso baten golkoan maitzen zenik. Edo, beste era batetara esateko, ez zuen Katalunia-arentzat hizkuntzaren kolektibitate balioa konprenitu. Katalunia zabal zedila nahi zuen, baina, zabaldu, inoren mintzaira erabiliz, gaztelaniaz:

Dijo y sostuvo (Unamuno) que los catalanes debíamos esforzarnos en catalanizar España, y que debíamos hacerlo en Castellano, *idaxten du Maragal-ek* (1911).

Maragall-ek, ostera, konplexurik gabe erasoten dio aholku horri: *pues yo creo que esto no puede ser. (...) La prueba ha sido hecha, nada menos que por cinco siglos. (...) ¿Dónde está el rastro de catalanidad en el espíritu español de mientras esto así ha durado?* Eta zuzenean erantzuten dio Maragall-ek Unamuno-ri:

No, mi admirado don Miguel de Unamuno; no, amigo mío muy querido; no puede ser, no podemos tomar la lengua castellana «como lengua propia», no podríamos hablar.

Herri oso baten gordailu bezala ikusten du Maragall-ek hizkuntza. Horrexegatik garamatza mintzairak politikara, elkar-bizitzan kokatzen baita hizkuntza. Estelrich-ek honela laburtu du Maragall-en estetikaren alkantzu politikoa: *Este ideal literario (demostración catalana de su teoría) ha marchado paralelamente a la inspiración política.*

Testuinguru politiko batetara datoz, beraz, «Renaixença»ko literatur lanen norabideak eta hizkuntzari buruzko pentsamol-

deak. Politik ideologiak eta programak erabat literaturaren ondorio soil bezala ikusi gabe ere (eta izan da «Renaixença»ren horrelako interpretapenik ere), historialariek beti ikusi izan dute mugimendu haren kulturgintzan indarrak politikara eramango dituen eragimen azkarra. Ez da harritzekoa, mundu politikoak, hein handi batetan, literaturaren ideia politikoak ispiilatzea.

Politikoen ideiak (1874-1930)

Hiru epetan bana genezake hurbiltzera goazkion histori aldi hau, irakurlearentzat hemen bilduko diren ideiak piskatxo bat ordenaturik azaltzeko.

Monarkia berreraikiaren epe-aldiak

1874-1901etan berritu egiten du Espainiak bere Monarkia borbondarra. Katalunian, federalismo errepublikazalea behera dator, eta nortasun katalanaren defendatzaileak nazionalista bihurtzen dira. Abertzaletasunak aurpegi garbiago eta ezagungarriagoa jantzen du: Katalunia nazio bat da eta naziotasun horren zerbitzurako, programa eta alderdi abertzale nazionalistak sortu behar dira. 1898ko krisialdia tartekatzean, katalanismoak bere formulazio heldua iristen du. Mañé i Flaquer eskuinean, Almirall ezkerrean, Guimerà «Renaixença» aldizkaritik, Duran i Bas Dertxo katalanaren alde, Torras i Bages Elizatik eta Prat de la Riba politikan..., hogeitabost urteok oso aberatsak dira katalanismoaren barne hazkuntzan.

1900-1914etako da bigarren epea. Aurrekoen ondoriobidez, *Lliga Regionalista* jaiotzen da Prat de la Riba-ren eskutik. Ez du katalanismoak erabateko batasunik; baina, harmagizonen mehatxupean, *Solidaritat Catalana*-ren hauteskunde elkargoa moldatuko du, 1907an egundoko garaitzapena irabazteraino. Solidaritat honen barneko etenak eta 1909ko *Setmana Tràgica* gorabehera, *Lliga-k* ez du galduko bere hegemonia politikoa, ez baitzaio lemarri onik faltako: Enric Prat de la Riba, guztien gidari. Ohizko partidu espainolek (*liberales* eta *conservadores*) galdu dute beren tokia Katalunian, eta Madrildik saiaturiko dira Alejandro Lerroux-en ziri politikoa sartzten. *Lliga-k* Espainia osoari emango dizkio eza-gutzera Kataluniaren erreibindikapenak. Kontserbadore izanzen da, noski, baina gaur bertan ere badago garai batetako *Lliga*-koengan ideia abertzalea nola saldu ikasteko zer azter eta ikus.

1914-1930etako itxaropenak eta krisialdia, ederrak eta zitala dira denbora berean. 1914ean *Mancomunitat-a* sortzen du Prat-ek,

lau probintzien arteko zenbait zerbitzu batuz, eta agintea Diputazioetatik instituzio berrira pasaiaz. Madrilek apenas ematen duen ezer, baina batasun Gobernu honek ez zuen gutti balio izan gobernu autonomo eta batuak Kataluniari nola lagun ziezaiokeen erakusteko. Duran i Bas-ek sortu nahi izandako instituzio konzientzia, Prat-ekin praxi politikoen bidez birretsi zen. Arrakasta politiko horrek, ordea, ezingo du *Lliga* hura, 1917-23etan, iraultza proletariaren beldurretatik salbatu. Harmagizon baten —dionenez, ez katalanisten etsaia, gainera— izenpean agertuko da tentazio politikoa: Primo de Rivera. *Lliga* izaturik dago ezkerreko uholdearen haundiaz, eta ez dio jeneralari ezetzik esango; baina bai laster damutu ere: *Mancomunitat*-a desegin egiten du diktatoretak, hizkuntza zokoratu... Hala ere, *Lliga* ez da gai beharko litzatekeen indarrez aurpegi emateko, eta katalanismo borrokalaria gidari berrien bila hasiko da: Macià, Rovira i Virgili, d'Olwer, Carrasco Formiguera, Companys, etab. Errepublikaren atarian, abertzaletasun ezkertiarrek prest dauzka bere jendeak eta erakundeak, aukera sortu bezain laster, agintea hartzeko. 1930eko abuztuan izenpetuko dute «Donostiako Akordioa». Errepublikak haintzakotzat hartuko omen du Kataluniaren nortasun politikoa.

Federalismoaren harrobitik

Laburtutako testuinguru honetan aurkitzen ditugu politikoen ideiak; baina katalanismoaren urandietan sartu aurretik, itzul ditzagun begiak iturrietara.

Partit Federalista de Catalunya deitua izan zen, harik eta sukurtsalismoa arazo bezala sentitu zen arte, nortasun katalanaren defendatzailea. Federalismoan biltzen ziren Katalunia zalerik beroenak. Valentí *Almirall* izan zen, esate baterako, lehen Kongresu katalanistaren gidarietako bat (1880); eta, bi urte geroago, *Almirall* berak sortuko du partidu espainolekin loturarik izango ez duen alderdi katalanista ere (*Centre Català*, 1882).

Federalismoaren eboluzioa direkzio batetan baino gehiagotan gertatzen da: batzu Partit Federalista-ren barrutian dihoaz aintzina (J. N. Roca i Farreras, adibidez), baina federalismoari zentzu katalanista bat txertatuz (R. N. Roca i Narcís); eta beste zenbaitek, ezker abertzaleak bereziki, federalismoaren harrobitik jasotako langaiez eraiki zuen katalanismo nazionalista politikoa-ren pentsamendua. Katalanismoak sortutako talde berrietara odol-hustuko da federalismoa, azkenik.

XIX. mende hondarretako federalistek azken ondorioetaraino

eraman zituzten, gezurra badirudi ere, abertzaleetasun katalanaren teoriak: hementxe dago Kataluniako independentismoaren jatorburu bat. Roca, Pi i Margall, Vallès i Ribot gero eta are iraultzaileago agertu ziren, Monarkiaren Berreraikuntza hartan itxaropenik ez zutelako ere bai.

¡Ah, impertinentes unitarios! ¿Recordáis los errores por los que fuimos a la pérdida de la Isla de Cuba? Por los mismos estáis poniendo en peligro la unidad de la Patria (Pi i Margall, 1900).

Federalismoa eta katalanismoa kontrajarri izan dira sarritan, historia aztertzean, baina autodeterminazioaren bidegurutzean elkartu ziren haiek. Kataluniaren soberania, autodeterminazioa eta independentzia ere badaude bi korronteen atze-oihal bakar bezala. Federalismoaren erreibindikapenetan, bi gisatan sumatzen dugu hizkuntzarena: batzutan isilpean, arazoa ukitu gabe, begi bistan dagoen eskakizuna dirudi; zenbaitetan, espreski aipatuz.

XIX. mendeko azken bi hamarrekoetan, eta lehentxeagotik ere, federalismoa itzaliz joanen da Katalunian. Eskuineko alderdiek hartuko diote erroleboa, eta ez nolana ere, berreraikia den Monarkiaren sisteman oso-osorik sartuz, aginteaz jabetzeko irrika biziz. 1714eko hondamendiaren mendehurrena, instituzio berritze batekin ospatuko da (*Mancomunitat*-a eraikiz), eta gailur hori ez du federalismoak irabaziko, ezta ezker abertzaleak ere. Eskuina izanen da garailea.

Eskuina eta hizkuntz politika

1874-1930etako urteetan, eskuina izanen da agintea eskuetan ukanen duen indar katalanista bakarra edo. Hizkuntz politika egiteko aukera izan zuen, garaiko sistema politikoak ezartzen zituen muga hestuen barnean. Batez ere, interesgarria litzateke *Mancomunitat*-aren jokabidea ezagutzea; baina, zoritxarrez, ez dut behar bezala iturrietara iritsi ahal izan, eta beste batetarako utzi beharko dut Kataluniako une hori.

Aitorpen zindoak

Eskuina aberatsa da hizkuntz politikarako proposamen teoriakoak egiten, eta praxia beste baterako lagatzen bada ere, badu interesik teoria bezala emandakoa ezagutzeak.

Bartomeu *Robert* (1842-1902) medikua, Barcelonako alkatea izan zen, eta, egokiera sortu zenean, Madrilgo Gorteetan lanegin zuen katalanismoaren ideiak zabaltzen. Politika gizona baino gehiago zen abertzale suhar. Hizkuntzaren eskakizuna gogoan

ukan zuen: katalantasunean bi oinharri aipatzen ditu. Bata, Kataluniaren barne soberania, eta bestea hizkuntza.

Narcís *Verdaguer* (1868-1918), Deretxo katalanaren defendatzaile irmoa izan zen eta *Lliga*-ren barnean korronterik abertzaleenaren aintzindaria. Deretxoarekin batera, hizkuntza gogoratzen du 1887an *Centre Escolar Catalanista*-n ikastaroa irekitzean, eta bidegabekeria ezinjasana bezala salatzen du hizkuntz egoera ofiziala.

Badugu katalanok geure hizkuntza (...), gure pentsamenaren derrigorrezko ibiltokia dena (...), baina bizitzako une arranditsuetan zokoratzeraz bortxatuak gara, mundu ofizialaren ate aurrean utzi behar dugu, eta sentiitu eta pentsatzen duguna faltsutzeraz eramaten gaituzte, sekula ongi ulertuko ez ditugun erak ezarriz (...). Gaizkileak ote gara, gero, honelako iraina merezi izateko?

Katalanaren erreibindikapenak gero eta jende gehiago irabazten zuen, ez bakarrik Principat-ean, baita gainerako Països Catalans deituetan ere. Mallorca-koa zen, esate baterako, Ramon *Picó i Campamar* (1848-1916). *Jocs Florals*-etan nabarmendu zen, eta 1885ean *Mestre en Gai Saber* izentatu zuten. «Bases de Manresa» direlakoak moldatzen goraki parte hartu zuen Picó-k *Unió Catalanista*-ren Asanblada-n, eta hain zuzen aurreproiektuan hizkuntzari zegokiona berak defendatu (hau da, katalana izanen zela Kataluniako hizkuntza ofizial bakarra). Gogorki erasotzen dio hizkuntza arrotza ezartzeko Katalunian eraman den politikari. Darabiltzan arrazoiak jaso ditzagun: hizkuntzak hagitz lagundu du nazionalitate kontzientzia iraun arazten, Gaztelak politikariek bidegabeena ezarri du hizkuntza kontutan; naziotasuna galtzeko, ez dago hizkuntza lagatzea bezalakorik. Katalanismoak eman duen hizkuntz defentsarik abertzaleenetakoa da Picó-rena.:

Geure hizkuntza propioa dugun unetik, geurekin jaio den hizkuntza, hain zuzen (...) gure baitan nazionalitatearen kontzientzia beti bizirik iraun arazi duen hizkuntza, ez du inork guri mintzaira hori erantzeko eta beste arrotz bat ezartzeko eskubiderik (...).

Jokabide horretan, Gaztelak injustiziarik haserregarriena eta biolentziazirik piztiena egin du (...).

Bidezkoa da, ba, bere buruaz kontzientzia duen herria (...), ahalegin dadila nortasun hori bizirik eta bere sen onean gordetzen, eta hizkuntza arrotza inposatzeko egiten zaizkion bortxapei etengabe gogor egiten (...).

[Zenbait nazionalitatez] osatua den Estatu baten botere zentralak, eskualde horietako baten hizkuntza beretzat hartu du, eta ez da zilegi, hain zuzen, mintzaira hartaz bakarrik baliatzea gainerako eskualde guztiakin harremanak eramateko (...).

Zanpatzaileen eta bortxatzaileen arrazak, eta horixe dira gure

arerioak, oin-harrizko printzipioa hauxe izan ohi du: nazionalitate bat deuseztatzeko ez dago beronen hizkuntza itotzea bezalakorik. Etsaien jokabide horretxek erakusten digu zer egin behar dugun guk, nazionalitate katalana bizkortzeko (...).

Torras i Bages

Hizkuntzaren zentzu nazionala oso presente zegoen, ikusten denez, «Manresa-ko Basiak» eman zituztenengan. Hango gizonak politikoak ziren, politika zibila egiten zutenak, alegia; baina eliz-gizonek eta Elizaren politika zuzentzen zutenek ere azaldua zuten arazo honetaz beren eritzia. «Renaixença»-ren barnean hainbat eliz-gizon suertatu zen. Proletalgoa, burgesia eta apezzeria elkar-irekin agertzen zaizkigu abertzaletasunaren mugimenduan, beren arteko kontraesanak ezin gaindituz. Elizak abertzaletasunaren teoriko gorenetakoa bat ukan zuen Josep *Torras i Bages*-engan (1846-1916). Arestian jasotako Picó-ren aipu horik idatzi eta hilabete guti barru, Vic-eko apezpikuak bere *La tradició catalana* (1892) atera zuen jendartera.

Hain sarritan errepikatutako harako esaera zahar hura «esti-loan gara gu geu» egia baldin bada, hizkuntzaren baitan dagoela herria bere nortasunean ere egia da. Hauxe da poetak emaniko identifikapena: «Bere hizkuntza irabazten duen herria, bere buruaz jabetzen da» (...). Gizarte lotura guztien artean, erlijioa salbu, hizkuntza da hertsienik lotzen gaituena.

Torras i Bages-en arrazoi teologikoak baliozkoak ziren ala ez jakitea, ez da guretzat axolazkoena hemen; baina gogoan hartzekoak dira, beste korronte abertzaleen artean, pentsamendu katolikoak ere egin zuen gogoeta seriosa eta hizkuntz kontzientzia nazionalari ezarri zizkion zimentarri teorikoak.

Honelako ekarkin teoriko batzuri esker, eskuineko abertzaletasunak politiko eginak eta helduak eman zizkion Kataluniari, nahiz eta bidegurutze zenbaitetan —larrietasun— beti-beti leialtasun berdinez ez jokatu gero. Dena den, aitortu beharra dago Kataluniak egun haundiak zor dizkiola eskuineko abertzaletasunari.

Prat de la Riba

Enric *Prat de la Riba* (1870-1917) izan zen *Mancomunitat*-aren lehen Lehendakaria. 1914ean zen hori, baina aski lehenagotik emana zion bere lanari norabide jakina. Unió Caatalanista-ren idazkaria zenez, 1892ko Manresa-ko Asanbladan parte hartu zuen. Horen gaztetako pentsamendu abertzalea *Compendi de Doctrina Catalanista* (1894) liburuxkan aurki liteke. *La*

Veu de Catalunya egunkariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen. *Lliga Regionalista*-ren barnean egin zuen lan eta, berau agintera igotzean, Kataluniaren gidari zolia bilakatu zen Prat. Historiak aparteko «seny ordenador» bat aitortu izan du haren baitan. Teoria mailatik ekintza politikora pasatzen asmatu zuen gizon aparta izan zela esan ohi da. Pentsatzaile eta ekintzale honen oroitzapena ez da inoiz galdu Kataluniako kolore guztietako abertzaleen artean, eta haren *La nacionalitat catalana*, abertzaletasunaren biblia edo izan da urtetan.

Aipatutako *Compendi* liburuxka Unió Catalanista-k eraturako lehiaketa batetan sariztatua izan zen eta, horrela, alderdi batek erdi ofizialki onhartua izan ondoren eman zuen argitara, 100.000 aletako edizioan. Baina erne zegoen Gobernuak, eta bahitu egin zioten edizioa, denbora berean autorea hauzitegira eramanez. *Compendi* honek, aberri bezala aurkezten zuen Katalunia, «aberrri» hitzaren esanahia honela finkatuz:

(Es) la comunitat de gents que parlen una mateixa llengua, tenen una història comuna (...).

Hizkuntza da lehenik aipatzen den balioa, nazionalitatea definitzean. Eta aintzina joaz, naziotasun horren eskubideak aipatzen ditu Prat de la Riba-k: aginte politikoa eta beronekin erabili beharko den hizkuntza:

— Beste zein eskubide aitortu beharko zaigu?, *dio galdera batek*.

— Katalunian, azalpen publiko eta pribatu guztietan, mintzaira ofizial bakar bezala hizkuntza katalana erabiltzearena. (*Lo d'usar en tots los actes públics i privats la llengua catalana, com a única oficial a Catalunya*).

Abertzaletasun ikaskaia zen hori bakarrik, inoiz beharbada praktikara eramango zena; hala ere, hori zen buru abertzale batek hautatutako helburua, eta gero gerokoak. Une historiko batetan, *Mancomunitat*-aren jaiotorduan, erretorika apurtxo bat tartean zela noski, gauza beretsua errepikatu zuen Prat-ek.

Prat-ek Kataluniarentzat eta katalanentzat hitzegiten zuen bereziki; *Lliga*-ko beste politiko batek definituko zituen Espainiaren aurrerako ideal berak. Cambó izan zen katalanismo politikoa herbesteari arkeztu ziona.

Cambó eta Lliga

Francesc Cambó (1876-1947) izan da, zalantzarik gabe, Kataluniak politika espainol garaikideari eman dion gizonik haundiena. Katalanismoa Espainiako politikan sartu nahi izan zuen, eta es-

kuineko katalanismoaren ahotsik boteretsuena gertatu zen. Bi aldiz izan zen Madril-en Ministro. 1914-1923etako urteetan bazirudien, Espainiako estruktura politikoak alda zitezkeela katalanistotik erasota, eta horretarako gizona Cambó zen, itxuraz. Hala ere gizarte iraultza baten beldurrez atzera egin zuen, eta jokabide horretatik jaio ziren ezkerretik egin zitzaizkion desleialtasun salakuntzak.

Hizkuntzaren erreibindikapen bidean, Cambó-ri zor dizkiogu formulaziorik borobilenetako batzu, borobilak eta bipilak.

Gu katalanistak gara, ez errejionalistak garelako, Kataluniaren naziotasunaren kontzientzia dugulako baizik, eta garaipena erdiets dezala nahi dugu. (...). Espainiak ez dezala itxaron haunditasunik, alde aurretik arazo katalana konpondu ez badu.

Espainiaren aldaketarako ahalbideak oso hurbil sentitzen zituena orduan (1916) *Lliga Regionalista*-k eta Cambó-k ere bai. Horregatik, politika berri posibleari norabideak eman eta helburuak izendatzea osoki premiazkoa zen Cambó-rentzat. Madril-go politika irabaztera irten zen, han agertuko zituen Kataluniaren erreibindikapenak, baita hizkuntzarenak ere: *plantejarem el plet de l'oficialitat de la llengua catalana* (katalanaren ofizialtasuna haurzia aurkeztu eginen dugu). Kataluniari kanpotik ezarritako funtzionariaren ezkatalantasuna salatzen zuen politikoak: epaileek, apezpikuek, maisuek ez dakite herriaren mintzairarik. Cambó bezalako eskuindar elizkoi batengan hain kupidagabekoa gerta zitekeen kritika hau ikus dezakegu:

Orain guti arte, Kataluniako apezpikuak, ia denak, katalanak gennituen. Orain, ostera, apenas dugun inor katalanik. Badirudi zera esan nahi digutela: Elizak ere —Estatu etsaiaren zerbitzuan balego bezala— Kataluniaren desnazionalizazioan eman behar dituela bere indarrak.

Gobernuak Gorteei, Erregeren Mezua bezala, emandako programa politikoaren kritika eginez esaten ziren horiek. Zazpi diputaturen sinadurekin, zuzenketa bat proposatu zioten Mezuari *Lliga*-koek. Horra katalanari buruzko eskea:

Sería la obra de antipatriotismo e implicaría grave imprevisión de funestas consecuencias que (...) hubiera millones de españoles que no tuvieran reconocida la oficialidad de su idioma (1916).

Lliga-k orduan hitzegin zuen Madril-en inoiz baino ausartago Kataluniaren naziotasunaz; hizkuntzaren erreibindikapena, horretxen ondorio bat zen:

El problema catalán (...) es un problema nacionalista. Y es un

problema nacionalista porque arranca del hecho de la personalidad catalana. (...). Es un hecho ante el cual no caben más que dos caminos: o aceptarlo con todas sus consecuencias o intentar destruirlo. (...). Existe, sí, el pueblo catalán, que tiene una historia, que ha segregado de su propia sustancia un idioma.

Baina, Cambó-rentzat, hizkuntza ez da naziotasunaren ondorioa bakarrik; nazioari iraunbidea ere ematen dio mintzairak. «Hizkuntzaren azalpena desagertzen ez den bitartean, izaera katalan berezgarri hau (*el fet diferencial català*) bizirik dagoela adieraziko du horrek, eta izaera horrek ondoriobidez dakartzan berezko indar eta abalmen guztiekin, gainera, bizirik». Behin eta berriz gogoratu izan zuen Cambó-k, Kataluniaren orde, Portugal izan balitz Gaztelaren menpe eroritakoa, gaurregun «problema portuges» bat ukanen genuke penintsulako politikan eta ez «problema katalanik». «Ideal iberikoa ezin dezake aipa ere Espainiak, politika asimilista behin betirako baztertzen ez duen bitartean». Katalunia, asmo asimilista horrexegatik, bortxatua izan da.

Esquindar politikoez poliki eraman zuten hizkuntzari buruzko erreibindikazio teorikoa; baina klase interesek ere egin zuten beren traizioa, eta ez zen desleialtasunik falta izan politika pragmatikoan. Dikotomia hori aipatuko du ezkerretik Martí i Julià-k. 1916az geroztik ezkerrearen kritika indartuz joango da, indartuz eta zabalduz, 1931n agintera iristeraino, eta, beraz, hizkuntz politika berri bat legeztatu ahal izateraino. Horregatik, komeni da orain ezker abertzale honen hildoari ere jarraitzea.

Ezkerra eta hizkuntz politika

Partit Federal-aren eraikileetakoa zen Valentí *Almirall* (1841-1904). Egunkariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen. Federalismotik katalanismo abertzalera pasa ondoren, Monarkia berreraikiko teorigile katalanistarik garrantzizkoena gertatu zitzaigun bera. Haren lumatik irten zen geroago ikusiko dugun *Memoria en Defensa de los Intereses Morales y Materiales de Cataluña* (1885).

Martí i Julià

1888az geroztik, Almirall-en izarra itzaliz dihoa ezkerreko abertzalegoan, baina egunsenti berriak ere badatoz. Domènec *Martí i Julià* (1861-1917) izan da ezkertiar abertzalegoaren teorikorik garrantzizkoena, Cucurull-ek dioskunez. Urtetan, Unió Catalanista-ren lehendakaria izan zen (1903-1816). Macià-rengan fede haundia hartu zuen, *Lliga*-ri bere politika kritikatzan zion bitar-

tean (1915). Nazionalismoa eta sozialismoa berdinki txertatu zituen elkarrengan, baina ez zuen sekula aginte politikorik eskutan hartu. 1916ko hitzaldi batetan, hau esaten zuen Martí-k Cambó-ren mintzaldi bat aztertuz:

Lliga ezin liteke izan, ez hemen, ez mundu osoaren aurrean leialtasun politikoaren eredu. Halakorik izan gabe ere (abertzale ez izanez ere, alegia), nazionalista izan litekeelakoaz komentzitu nahi izan gaitu. Eta bere Gazteriaren aldizkaria argitara ematean, gaztelaniaz ematera iritsi da; hori ez da abertzaletasuna. (...). Hirian bertan dugu Lliga-koek gidatzen duten *Merkatalgo Ganbaran* oraintsu gertatua: lehenago egiten zuten bezala, irakaskintza katalanez ematea ukatu egin dute Lliga-koek.

Eta politiko eskuindarrei galdera hau eginez bukatzen zuen Martí-k bere erasoak: *qué en podem esperar d'aquesta Lliga?* Ezkerrak kontraesan nazional ezin konponduak ikusten zituen Lliga-ko gizonen teoriaren eta praxi politikoaren artean.

Macià

Baina, erakunde faltaz, ezkerrari ere ez zitzaion erraza suertatzen printzipio garbien eta ekintza politiko lohituaren arteko ezkontza leiala. 1916-1930etako urteetan aurkituko ditu ezkerrak bere erakunde bizkorak eta herriaren gogoak jasoko duten gizon gidariak. Hauen artean jarri behar da Macià oroigarria.

Francesc Macià i Llussà (1859-1933) harmagizona izan zen; baina, gudaosteak utzita, katalanismoaren politikara pasa zen. 1907az geroztik, hauteskunde bakoitzean irabaziko du aulki bat Madril-go Gorteetan, baina laster komentzitzen da Kataluniari politika espainolak ezartzen zizkion baldintzez eta 1915ean laga egingo ditu Gorteak.

Macià independentista bezala agertu zen Gorteetan eta berak gidatutako alderdien programetan: *Federació Democràtica Nacionalista* 1919an sortuan, eta *Estat Català* 1922an eraikian. Geroago ikusiko dugu 1928ko Habana-ko Kongresuko agiria ere. Biolentziaren alde egon zen, eta 1926an bere gizonak harmatu ere bai.

Primo de Rivera-ren hizkuntz zapalketa salatzen zuen Macià-k 1924ean (Perpinyà). Katalana jazarpen gogor baten erasopean bizi da, dio politikoak: izan ere, debekatua baitago Gorporazio publikoetan eta baita elkarte pribatuetan ere. 1926an Piriniotako muga igarotzera dihoa Macià bere jende harmatuarekin batera; ekintza honen aurretik, eta egokiera zetorreanean zabaltzeko, pres-

tatuta zeuzkan bere deiak. Badago «Declaració d'Independència» bat ere, eta ez du ahanzten hizkuntzaren erreibindikapena:

Ez ahal dugu geure hizkuntza berezi eta benetan geure bat? (...). Hizkuntza da, hauxe bakarrik, geurea duguna, eta hau ere gure haurren ezpainetatik eskolen bidez kendu egin nahi digute itsuski, eta baita zuen ezpainetatik ere lotsaz eta irainez.

Aro berri baten aintzinean ote gauden pentsa liteke Macià-ri *Per la implantació de la República Catalana Independent* deia irakurtzean.

* * *

«Renaixença»ren kulturak eta ezker-eskuinetako katalanismo politikoez hizkuntzaaren defentsa eskatzen zuten, erabaki politikoak har zitezela alegia, nazio nortasunaren funtsezko oinharri hau sendotzeko. Eske politikoa, alderdien eta Kataluniako elkarteen agiri eta programetan lege-proposamen batzutura iristen da.

Bi puntu nagusitara bilduko dugu idazlan politikoetan idoro dezakeguna: alderdien agirietara eta Estatutugaietako testuetara.

Hizkuntza, agiri politikoetan (1874-1930)

Partiduek, programa eta agirietan eman ohi dituzte beren hausnarketa ideologiko eta politikoak. Katalanismoaren barnean ere, bidezkoa denez, ez da honelako agiririk falta. Dokumentu hauek duten ofizialtasunagatik eta talde politikoaren gogoeten fruituak direlako, esanahi aberatsagoa dute agiriok bakarkako politikoenek baino.

Urtez urte bilduko ditut hemen alderdiek beren programatzat aitortutako azalpenak; ez denak noski, baina bai hizkuntzaren aldetik eskabide nabariagoak eskaintzen dizkigutenak.

Alderdien agiriak

1890ean *Centre Català*-k bere programaren azalpena egin zuen. Alderdia ez zen orduan jaiotzen, baina lehentxeago erdibiketa bat jasana zen. Almirall-ek sortua zen alderdia 1882an, «Catalunya i avant» deiarekin. Hizkuntzarentzat ofizialtasuna eskatzen du azalpenak, bizitza publiko eta irakaskintzarako. Nahiko bitxia da gertatzen den zerbait: «Kataluniak sostengatuko dituen irakastokietan, Espainian ofizialak diren mintzaira denak irakastea derrigorrezkoa izanen da». Badirudi, federalismoaren tradi-

zioan datorren asmoa dela hau, eskualdeen artean ez hautsi deus, solidaritateak sortu baizik.

Kataluniaren beraren barneko bizitzari begira, ideia horrekin-txe jaiotzen da *Solidaritat Catalana* 1906an. Giroa oso katalanista da hilabete haietan. Gertakari sonatu aski pilatzen da: deputatu katalanistek utzi egiten dituzte Gorteak; katalanaren Lehen Kongresua ospatzen da. *Estudis Universitaris Catalans* orduan jaiotzen da. 44 aulkitatik 41 dira *Solidaritat*-ak irabazi dituenak, eta senatoreetan denak bereak ditu. «Programa del Tívoli» deituan erakutsi zituen helburuak hauteskunde talde honek. Batez ere instituzio politikoen eskea agertzen da programa barnean. Hizkuntzaren mailan interesgarria da, irakaskuntza, bere eginkizun gehienetan, Kataluniaren eskutara pasa dadila eskatzen duela jakitea; eta aldakuntza horretarako ekonomi indarrak ukatea eskatzen da.

«*Memorials de Greuges*»

Hizkuntzaren erreibindikapena, alderdi agiri hauetan baino nabarmenago geratzen da kanporako egindako dokumentuetan. Izan ere, Katalunia barnera begira egindakoak ziren lehenak, eta etxe barnean apenas inork eztabaida zezakeen erreibindikapen horren arrazoizkotasuna. Eraso kanpotik zetorrenez, harako hitzegitean behar zen hizkuntza garbiki defendatu. *Memorials de greuges* deituetan (irainen oroigarrietan, alegia) azaltzen da batez ere hizkuntzarekiko eskakizun nazional eta politikoa.

Moeta honetako lau dokumentu jaso ditzakegu hemen; 1885ean Alfonso XII.ari emana, 1888an María Cristina Erreginari zuzendua, 1916an *Lliga*-ko deputatu eta senatoreek Erregeri idatzitako agiria, eta, azkenik, 1924ean, Diktadura garaian, Nazioarteko Erakundeari bidalitakoa.

1885eko dokumentua Erregeri eraman zion Batzordean, lau lagun gutienik literatur pizkundeko izen ezagunak eta gorenak ziren (F. Soler, J. Verdager, A. Guimerá, J. Collell). Katalanismo politikoaren talde kontzientziaren lehen azalpen ofizial batua da dokumentu hau. Monarkia birmoldatuaren barnean, Cánovas lehen ministroari ez zitzaion batere atsegina gertatu: izan ere, Katalanismoaren taldekatze arriskua erakusten baitzuen egitada hark.

Hizkuntza ofizialaren eskea honela geratzen da eskutitzean, salakuntzaren akuilua erabili ondoren:

Lo que nosotros deseamos, Señor, es que en España se implante un sistema regional (...).

No podemos usar nuestra lengua más que en nuestros hogares y en conversaciones familiares; desterrada de las escuelas, lo ha sido más tarde de la contratación pública y también de los tribunales, en los cuales muchas veces, y por muy ilustrados que sean, ni los jueces entienden a los testigos y procesados, ni estos entienden a los jueces.

Quiera Dios que nuestra trabajada nación pueda regenerarse por el particularismo, (...) en el que se mezclaran todas las lenguas nacionales, oficialmente iguales en categoría, y unidas en un sólo sentimiento.

Hizkuntza guztientzat berdintasun ofiziala eskatzen da, anaiarte adiskide batetara iristeko. Dokumentu honen ondorio politikoak hutsaren hurrengoak izan ziren, eta Kataluniako burgesia industrialak eta lur latifundismo espainolak elkarren adiskide segitu zuten 1898ra arte.

1888an Erreginari zuzendutako *Missatge*-ak puntu eta eskakizun beretsuetara itzuli beharko du. Mezu hau katalanez idatzia dago eta *Jocs Florals*-etan parte hartu ondoren ematen zaio Erreginari. Berrogeitazazpi elkartek izenpetzen zuten gutuna eta izen haundiko beste 346 lagunek. Soberania politikoaren aitortpena agertzen da, eta autonomia osoaren eskea; hizkuntzaren eskakizun politikoa bi mailatan ezartzen da; eskuarki, katalanaren ofizialtasun orokorra eskatzen du eta irakaskuntzaren katalantetasuna ere bai.

Que la llengua catalana sia la llengua oficial a Catalunya per a totes les manifestacions de la vida d'aquest poble: Que l'ensyança a Catalunya sia donada en llengua catalana: Que sien catalans los Tribunals de Justicia y totes les causes i litigis es fallin definitivament dintre del Territori.

Zentzu berean, baina zolitasun haundiagoz hitzegingo du *Lliga Regionalista*-k 1916an. Une hartan, askoren ustez, posible da *Lliga* katalan hura gertatzea Espainia berriztatuaren bultzatzaile. *Lliga*-ko gizonak «Per Catalunya i l'Espanya Gran» agiria zabaltzen dute. Hitzak gordinak direla esango nuke:

Katalunia eta jatorri berekoak diren beste bi Estatuak, Mallorca eta València, Espainian sartu zirenean, beren hizkuntzak gaztelaniak bezalakoxe eskubide eta lehenengotasunak zeuzkan, latinarekin batera barneko bizitza publiko osoan eta nazioarteko harremanetan ofizialtasun bera zuela. (...).

Zergatik hizkuntza katalan hau —Gorte eta Parlamentuetako hizkuntza, diplomaziaren eta legetako hizkuntza, zientzia eta poesiaren mintzaira, Monarkiaren bateragintza hura osatzean jatorriz eta eskubidez gaztelaniaren parekoa zen mintzaira—, zergatik izan da, batasun horren poderioz, herbestetua eta bizitza publikotik bortzaz ateraita, borta bezala bere sortetxetik botaita, eta areago oraindik:

ministro eta funtzionarioek iraindua, dialektotzat joa, *patois* arlote eta zaharkitu bat bezala heriotzera emana, azkenik etxeko supazterrean hil zedin utzia?

Gaurko tontorretik begiratuta, Prat de la Riba-ren lumatik irteandako hitzak soziolinguistikaren zientzia beretsua dutela azpi-azpian esanko luke norbaitek; hizkuntza *ezin da salbatu* bizitza *pribatu soiletik*. Hizkuntzak, berezko eskubidea du eginkizun publikoetara pasatzeko.

Atzerrira deia (1924)

1923an Barcelona-tik hartu zuen Primo de Riverak Madrilgo agintea, eta hasiera batetan, eskakizun haien itxaropena suspertu bazen ere (lehendik hizkuntza katalanaren maitaletzat agertua baitzen generala), laster ikusi zen zein politika zeraman.

Oraingoan, herbestetik eta nazioarteko elkarte politiko barentzat hitzegingo du katalanismoak: Diktaturaren kanpotik libertatean zegoen deputatu batek *Erregu* bat zuzendu zion Genève-ko Nazioen Elkarteari, herbesteko askatasun horretaz baliatuz. Hizkuntza, Kataluniaren herritasun ardatza bezala ematen da:

Hizkuntza katalanak —gure herriaren agerpide den eta, beroni izaera bera loturik duelako, sekula baztertuko ez duen mintzairak— ez du lortu Estatu espainolaren barnean, minoria nazionalen Nazioen Elkarteak babestu izan dien askatasunik guttienera. Hauzitegiek ezin dute erabili hizkuntza hori, Estatuaren eskoletan ez da irakasten ere, eta Estatuaren presuposturik —beronen laurden bat Kataluniatik ateraita da— ez da deus izendatzen gure kulturarentzat (Manuel Massó: *A la Societat de las Naciones*, 1924).

Eta Diktaturak ez du hori bakarrik egiten —gehitzen du Massó-k—; bildutako zergetatik ezer ez itzultzeaz aparte, Kataluniak berak bere patrikatik borondatez eman nahiko lukeena ere debekatu egiten zaio hizkuntzaren alde eralgitzea.

Are eta areago, epe llabur honetan, pertsegizio espainola piztike-riaz jokutzen ari da hizkuntza eta kultura katalanen aurka. Azkenik, Kataluniaren deskatalantzea da gobernu honen burubidea.

Hau dena politiko katalanisten komentzimendu bat zen, eta eskakizunak egitura politikoetara eramane nahi ziren. Askapen bide bat asmatu behar zitzaion hizkuntzari; estruktura politikoen baitan, libertate nazional horri leku bat egokitu beharra zegoen. Horregatik, sistema politiko osoaren moldatzaile den Deretxo Politikora (Konstituzio, Estatutu) eramango da hizkuntzaren traeta berri nazionala.

Hizkuntza, Estatutugaietan (1874-1930)

1883koa da alderdi politiko batek egindako lehen Estatutugaia. *Partit Federal*-ak asmatua zen Proiektua, eta Kataluniako Eskualde Kongresuan onhartua zabaldu zen. *Constitució de l'Estat Catalá* bezala emana, badu radikaltasun bat bere asmo eta helburuetan, bai arazo sozialetan eta baita nazionalean ere. Macià-ren aurreproiektua salbu, Estatutugairik gordinena da katalanismoan ezagutzen ditugunetatik: Estatu katalanak soberania osoa du, eta hitzarmen bidez lotzen da bakarrik; baina inoiz ere soberani ahalmenik galdu gabe. Estatutugaia katalanez dago; baina ez da hizkuntza espreski aipatzen. Badirudi, arazo horretan ez dagoela eztabaida edo zalantzarik; soberaniari eta aitortua eta sentitua den nortasunari darion izan-modu natural bat dela Kataluniak katalana ofizialtzea. Dena den, ofizialtasun honetaz ez da ezer esaten dokumentu honetan. Hizkuntzarekiko eskakizuna egun-argitanago agertuko zaigu arestian aipatu dugun *Centre Catalá*-ren programan.

Baina katalanismoaren historian eta Estatutuaren bilakabidean hain axolazkoak gertatu ziren *Bases de Manresa*-tan aurkitzen dugu hizkuntzaren trataera konstituzional batetarako formulaziorik espresena.

Bases de Manresa (1892)

Unió Catalanista-k bildutako Asanbladatik (1892) irten zen dokumentu konstituzional hau (honelaxe, *konstituzional*, deitzen diot, horretara iristeko sortu baitzen). *Unió Catalanista*, alderdien gainetik zegoen elkargo bat zen; 1891n jaio, eta Kataluniako herri guztietako talde katalanisten elkartea izan nahi zuen. *Lliga de Catalunya*-ko gizonak ziren *Unió* honen gidaririk suharrak (Narcís Verdaguer, Duran i Ventosa, Prat de la Riba, etab.).

Dokumentuaren izen osoa honela zen: *Bases per a la Constitució Regional Catalana (Bases de Manresa)*; eta bi parte ditu konstituziogaiak, Botere Zentralari dagokiona bata eta eskualdeko Botere autonomiari datxekona bigarrena. Sozialki kontserbakorra agertzen da dokumentua; baina konfesionaltasunari buruz, esate baterako, ez zituen integristak kontent utzi. Arazo nazionalean bortizkiago jokutzen du: barne gobernurako Kataluniari soberania aitortzen dio; ez du kanpotarrik ametitzen hango kargu publikoetan, Botere Legegile bakarra Gorte Katalanena izango da, etab.

Hizkuntzaren eremuan ematen den norabidea ezin argiagoa da: katalana hizkuntza nazional bakarra den ala ez esan gabe, testuaren azpitik horixe ageri da. Ofizialki, Kataluniaren hizkuntza *bakarra* katalana izango da, ez dago besterik. 1716tik 1892ra artean Monarkia espainolaren politika kolonialak txertatu zuen mintzaira arrotza ez da haintzakotzat hartzen. Edo beharbada, bai; baina beti ere hizkuntza etorkiak egindako hondamendia konpontzeko erabakiarekin. Areago, oraindik: Kataluniak bere barnerako hizkuntza bakarra baldin badu, berdinki gertatzen da herbestearekiko harremanetan. Dena katalanez egingo da. Garai batetan, katalanak Erregerekin katalanez mintzatzen baldin baziren, ukatutako usadio hura berriro beharra dago:

Base 3.º La Llengua catalana serà l'única que, amb caràcter oficial, podrà usar-se a Catalunya i en les relacions d'aquesta regió amb lo Poder central.

(Katalunian ofizialki erabili ahal izango den mintzaira bakarra hizkuntza katalana izango da eta berdín eskualde honen Botere zentralarekiko harremanetan).

Ikusten da, ba, katalanaren ofizialtasuna erabat garbiki definitzen dela; katalana da herri horren hizkuntza, eta ez besterik.

«Mancomunitat»aren gogoa

1892ko *Bases* haien ondoren, eskakizun hauk bizirik daude katalanismoan: hizkuntzarentzat politika berri bat egin behar da, baina, politika egiteko, ezinbestekoa da tresna instituzionalak eta aginte barrutiak mugatzea.

Lege eskuera horren bila dihoaz zuzenean, Karlisten Aurreproiektua 1899an eta Mancomunitat-ak berak 1918an eta 1919an prestatzen dituen Autonomiarako Estatutugaiak. Hizkuntza ez da aipatuki izendatzen. Une honetan badirudi, elkarrizketa politikoak berez ekarriko duela instituzioen aldakuntza, eta trukaketa horri naturalki darion zerbait izanen dela hizkuntzaren tratamendu abertzalea.

Macià eta karlismoa ere

Baina, eskuina Madrilekin tratutan dabilenean, ezkerrearen abertzaletasun praktiko epela salatzen hasi zen. Arestian ikusi dugu Martí i Julià-ren salaketa. Kataluniako abertzalegoa ezkerrean lerratzen hasiko da 1917-1923etako krisian. Erreibindikapen nazionalaren ahots gogorra ezkerretik entzungo da: 1919an jaiotzen da Francesc Macià-ren *Federació Democràtica Naciona-*

lista, eta berehala Kataluniaren barne Gobernurako, hauxe esaten du llabur-llabur: *La llengua catalana serà declarada oficial*.

Diktaturaren garaiak oraindik areago kontzientziatuko ditu politikoak. Karlistik esate baterako. 1899an bere Aurreproiektuan aipatu ere egin gabeko hizkuntza, 1930eko *Projecte d'Estatut de Catalunya*-n ezingo du ahortzi karlismoak. Lehendabizi Kataluniaren «nortasun nazionala» aitortzen du «bere berezitasun indibidutzaile guztiekin»; gainera, Manresa-ko dokumentuan aipatzen ziren bi ikuspegi sartuak daude hizkuntzari dagokion artikuluan: Katalunia barneko ofizialtasuna eta kanpoko harremanetan katalanari lagako zaion lekua. Karlismoak —Foru tradizio soilera itzuli nahi guztiarekin ere— ez du 1716aren aurreko egoera linguistikora bueltatu nahi; horregatik, kanpoko harremanak gaztelaniaz eginen dira, bestelako akordiotara iristen ez bada bederen. Honela hitzegiten zuen Aurreproiektu karlistak:

Katalunian mintzaira katalana izango da hizkuntza ofiziala.

Botere konfederal eta Federal arteko harremanak gaztelaniaz eginen dira, bestelako hitzarmentara borondatez iristen ez den bitartean.

Hau zen Karlismoaren jarrera, eta *Lliga*-rena lehentxeago ikusi da. Biak eskuinean zeuden, bai karlismoa eta baita *Lliga* ere. Laster, ordea, ezkerrek hartuko zituen hitza eta agintea, Macià-ren gidaritzapean.

Sozialismoarekin edo UGTrekin Diktaturak ukan duen tolerantziarik ez du katalanismoak beretzat ezagutu. *Mancomunitat*-aren garbiketa egin zen 1924ean, eta 1925ean deuseztatu. Garai batetan (1914-23) Katalanari *Mancomunitat*-ean emandako leku publikoa ere ukatu egiten zitzaion; Elizaz baliaturik, katekesiaren bidez, gaztelania sartu nahi da haurren baitara. Joka-bide asimilista honek Vidal i Barraquer-ekin topo egingo zuen. Zapalkuntzaren barnean, ezkerredera joko du, ba, katalanismoak.

Testuinguru honetan, Habana-n bildu zuen Macià-k bere *Partit Separatista Revolucionari de Catalunya* alderdia; herbestean, Kataluniaren Estatutua prestatzen dabilta abertzalerik minduenak, beroenak. Aparteko ibilbidea bilatu beharko da, idazten du Macià-k Mendoza-tik:

Kataluniak Estatu Espainolarekin lankidetzan jarraituko balu (bere ikurrina erdeinatu, hizkuntza iraindu, tradizioak nahasketatu eta aberastasunak lapurtzen dizkion Estatuarekin, alegia), bere oho-reen kontrako konplizitatea onhartuko luke (1828).

Altxamendu harmatura dei egiten da. Diktaturaren zapalkun-

tzak ez dio beste biderik uzten, nonbait, katalanismo ausartari. *Constitució Provisional de la República Catalana* bat onesten da Habanako Asanbladan. Hauxe da, Catalonia zapalduan, katalanismoak sekula eman duen konstituziogairik radikalena. Pentsamendu independentista eta elebakartasun ofizialaren asmoarekin datorren agiria da hau. *Manresako Basiek* ziotena bera berritzen du, baina llaburrago eta inolako zalantzari zirrikitorik laga gabe:

Art. 2. *L'única llengua oficial de Catalunya és la catalana.*

Oraindik, zortzigarren artikuluaeren barnean bada katalantasanaren azalpen bezala hizkuntzari zer-nolako garrantzia ematen zaion erakusten digun zerbait: atzerritar adineko batek legezko katalantasuna lortu nahi baleza, bost urtetako egonaldia behar du egin Katalunian, borondatez eskatu behar du nazionalitate hori; baina *katalanez mintzatu eta idazten ez baldin badaki*, ezingo zaio legezko katalantasun hori atzerritarrari eman. Konstituziogai honek, lortuko den Kataluniaren independentzia daukanez oinharrian, espainolak ere atzerritar izanen dira, hizkuntzari buruzko baldintza hori betetzen ez badute.

Irakaskuntzaren antolamendua legezatzean, katalana izanen da, Aurreproiektuaren arauera, lehen mailarako derriorrezkotzat ematen den hizkuntza (6-12 urtetarako); bigarren mailakoan ere katalana da irakas-tresna, eta gaztelania obligazioz emango da, frantsesa, ingelesa nahiz alemana, hirutatik bat, nahitaezkoa dela.

Hau da Macià eta beronen partiduaren pentsamendua, Errepublikak etorri aurretik. Gero, agintea eskuratzean, ez dira eragozpen eta itxaropide berak ibiliko jokuan. Aldian aldiko, eta ingurunearen oihartzun nahiz erreakzio diren politikak egin ohi dituzte politika gizonak ere. Politika *egokituak* esan nahi da.

V. — Ondoriobidez zenbait ohar

Bidaia luzeegi honen ondoren, bidezko izanen da, laburpen gisara, zenbait puntu azpimarkatzea. Hona batzu.

Eskuarki esan ohi den baino zaharragoa da abertzaletasun katalana. Ez da jaio XIX. mendean, XVII.lean baizik. Hartaz gero, eta XVIII. mende osoan zehar egindako lan eta sortutako instituzioetatik jaio zen «Renaixença». Mogimendu hau kulturazkoa eta politikoa izan zen, denbora berean, eta XIX. mendearen hondarretan katalanismoari formulazio politiko heldu bat emateraino iritsi zen. Pentsamendu koherentzia bat lortu zuen.

Sozialki oinharri zabalak zituen «Renaixença»-k, nekazalgoan, merkatalgoan, apezterian, burgesian eta proletalgoan. Ideologiaz eta taldez, ezker-eskuinetan, bietan, topa ditzakegu zinezko abertzaleak. Ezker progresismoak ez zuen abertzaletasuna ukatu.

Mogimendua alderdi politiko bilakatu aurretik eta ondoren, alde batetik indar eragile eta bestetik errebindikatua gertatzen da hizkuntza. Identitate nazionala mamitu eta nazio kontzientzia sustatu egiten ditu.

Hizkuntzari sostengu politiko bat eman beharra sumatzen da kultur gizonen artean, eta gizon politikoetan, ondorioz, defendakizun nagusi bat bihurtzen da hizkuntza. Kultura eta politika lehiakide dira, beraz, mintzairari babes ofizial bat egokitu nahiez.

Hizkuntza, funtsezko balioztat aitortzen da kulturgintzan eta politikan.

Politika, heldutasuna lortuz dihoan heinean, ez du inork hizkuntzaren balio nazionala ahanzten, eta geroz eta argiago ikusi eta erakutsiko da mintzaira katalanaren ikuspegi politiko-nazionala. Hainitzentzat, hizkuntza da, hain zuzen, nortasun katalanaren *balio eta agerpiderik funtsezkoena*.

Inoiz, politikaren tratuetan, katalanaren erreinbindikapena epeltzen nahiz nahasten baldin bada, talde politiko tratalaritik kanpo geratutako abertzalegoak jasoko du, berriz ere, hizkuntzaren ikurrin garbia.

Eta berriro erasoko zaio hizkuntz politika arrotz eta zantpatzaileari... Kataluniak ez zuen amor eman honetan, eta ahal izan zuenean, bortizki heldu zion politika berreraikileari (1931-1939). Aro berri honetako lana arakatzea beste batetarako gelditzen zaigu.

J. I.

LA REIVINDICACION DE LA LENGUA EN EL NACIONALISMO CATALAN LA REVENDICATION DE LA LANGUE DANS LE NATIONALISME CATALAN

El artículo responde a una preocupación concreta: el tema de la política lingüística y la planificación de la nueva sociedad bilingüe del País Vasco puede desembocar, a corto o medio plazo, en una encrucijada de alianzas y enfrentamientos políticos de difícil previsión.

Lo mismo en la línea divisoria de los grupos designados como «sucursalistas» y «abertzales» que en la frontera de «izquierdas» y «derechas», así como en la comunicación (de inteligencia o rechazo) del sector «culturalista» y la clase política (parlamentaria o extraparlamentaria), los puntos neurálgicos de la política lingüística van a dar lugar, presumiblemente, a un diálogo o soliloquio endurecidos.

Es posible, incluso, que se llegue a cuestionar no sólo en la práctica política, sino también teóricamente, el valor nacional del idioma.

En previsión, y para ilustración, de este futuro de debates, se aporta acá el caso de la lengua catalana, enjuiciado por el propio nacionalismo catalán. Se recurre a Cataluña como medio de ganar distancia y serenidad, y porque se trata de un caso peninsular que, en varios aspectos, puede considerarse paradigmático. En todo caso, hay que situarlo en el contorno más general desarrollado por el mismo autor en *El Libro Blanco del Euskara* (pp. 79-116).

Fundamentalmente el artículo es un primer acopio de materiales, sin llegar a un exhaustivo y sistemático análisis; creemos, sin embargo, que se trata de un ejemplo histórico suficientemente ilustrativo. Digamos que, a través de este caso histórico concreto el lector podrá aproximarse a una respuesta cuya pregunta sería esta: ¿Qué lugar político ocupa el idioma en los movimientos nacionalistas de liberación?

Cataluña y el catalán son un caso en que se ha cumplido el ciclo histórico completo del status social de una lengua: el ancho arco del nacimiento-Edad de Oro-decadencia de la Literatura catalana (que va desde los orígenes medievales hasta el siglo XVII) cubre, al mismo tiempo, un largo período de vigencia oficial de la lengua misma. A la decadencia socio-político-literaria de los siglos XV-XVII sucede un cambio radical en la inmemorial política lingüística del país.

La monarquía borbónica, tras la Guerra de Sucesión, establece por sí su política represiva de la catalanidad por medio de la Ley de Nueva Planta (1716), sin exceptuar, en modo alguno, de esta represión, la propia lengua catalana, sentido de rechazo como factor nacional importante a extirpar. A la marginación oficial del catalán corresponde, paralela y simultáneamente, la implantación política del castellano en el área de los Países Catalanes.

La presión oficial en favor del castellano se deja sentir de diversos modos: el catalán toca fondo en su decadencia, ya la cultura oficial y «válida» se hace en castellano, la conciencia nacional del idioma titubea en algunos casos (por ej., A. Capmany)...

No obstante, al socaire de creaciones bien en catalán (más bien poco brillantes), o bilingües, bien monolingües castellanas, Cataluña busca una nueva lucidez. Por eso, la aletargada conciencia de su identidad colectiva súbitamente se siente sobrecogida y conmovida ante la Oda a la Pàtria (Aribau, 1833). Despunta y clarea, así, la «Renaixença».

Durante el resto del siglo XIX, en un trenzado ininterrumpido de sugerencias y demandas, lo mismo los literatos y apologistas de la lengua que los pioneros y guías del catalanismo ideológico y político fueron apuntando las reivindicaciones políticas del idioma. El renacer cultural, el carlismo y el tradicionalismo, el federalismo y el nacionalismo (burgués, popular o socializante) serán reflejos de una revalorización consciente del idioma como elemento nacional. Las Bases de Manresa (1892) son un hito también en esto.

Antes de la II República, corresponderá a la derecha nacionalista, dirigida

en aquella oportunidad por Cambó, la defensa parlamentaria más brillante de la lengua catalana (1916), no sin que, en sus momentos de vacilación o claudicación, surja la voz delatora desde la izquierda patriota. La obra de la Mancomunitat (1914) se verá truncada, en su realidad y esperanzas, por la Dictadura (1923-1930).

La nueva oleada de represión termina por exasperar las corrientes políticas (Intentos armados y programas independentistas de Macià). Sólo la política estatutaria de la República abrirá nuevos cauces de recuperación lingüística, hasta ocupar nuevamente el natural ámbito político-social que correspondía a la lengua nacional, aunque bien entendido que no es permitido constitucionalmente el retorno al punto anterior al de la colonización lingüística generada por la legislación de Felipe V. Pero el tema de la política lingüística republicana queda ya fuera de este trabajo.

(Para terminar digamos que los textos recogidos lo han sido generalmente de la Panorámica del nacionalisme català, de F. Cucurull).

L'article répond à une préoccupation concrète: le thème de la politique linguistique et la planification de la nouvelle société bilingue du Pays Basque peut aboutir, à court et moyen terme, à un carrefour d'alliances et d'affrontements politiques, difficilement prévisibles.

Soit dans la ligne qui divise les groupes désignés comme «succursalistes» et «nationalistes», soit dans la frontière de «gauches» et «droites», soit dans la communication (d'intelligence ou de rejet) du secteur culturel et la classe politique (parlementaire ou extraparlamentaire): les points neuvralgiques de la politique linguistique vont occasionner vraisemblablement un dialogue ou monologue très durs.

Il est même possible qu'en en arrive à mettre en question, non seulement dans la pratique politique mais aussi dans la théorie, la valeur nationale de la langue.

En prévision, et comme illustration, de ces futurs débats, on y apporte le cas de la langue catalane, jugée par le même nationalisme catalan. On choisit la Catalogne comme moyen de prendre une certaine distance et plus de sérénité, de plus parce qu'il s'agit d'un cas péninsulaire qui, à plusieurs points de vue, peut être considéré comme exemplaire. En tout cas, il faut le situer dans le contexte plus général développé par le même auteur dans *El Libro Blanco del Euskara* (pp. 79-116).

Fondamentalement, l'article est un premier apport de matériel sans analyse exhaustive et systématique; nous croyons, cependant, qu'il s'agit d'un exemple historique suffisamment illustré et éclairant. Disons que à travers ce cas historique concret, le lecteur pourra s'approcher de la réponse à la question suivante: **Quelle place politique occupe la langue dans les mouvements nationalistes de libération?**

La Catalogne et le catalan sont un exemple où le cycle historique complet du statut social d'une langue a été effectué. L'arc complet: **naissance-Age d'Or-décadence de la Litterature catalane** (qui va des origines médiévales jusqu'au XVIIème siècle) couvre en même temps une longue période **d'existence officielle de la même langue**. A la décadence socio-politico-littéraire des XV-XVIIème siècles succède un changement radical dans la traditionnelle politique linguistique du pays.

La monarchie bourbonienne, après la Guerre de Succession, établit elle-

même sa politique répressive de la «catalanité» par la **Ley de Nueva Planta** (1716), sans excepter évidemment la langue catalane à extirper radicalement comme facteur national important. A la marginalisation officielle du catalan correspond, parallèlement et simultanément, l'implantation politique du castillan dans l'aire des Pays Catalans.

La pression officielle en faveur du castillan a été ressentie de diverses manières: le catalan atteint le fond de sa décadence; la culture officielle et «valable» se fait en castillan; la conscience nationale de la langue lésine en quelques cas (par exemple, A Capmany)...

Cependant, à l'abri de créations soit en catalan (plutôt peu brillantes) ou bilingues, soit en castillan seulement, la Catalogne cherche une nouvelle lucidité. Pour cela, la conscience de son identité collective tombée en léthargie se sent soudain saisie et émue devant la **Oda a la Pàtria** (Aribau, 1833). Ainsi commence à pousser et à briller la «Renaixença».

Pendant le reste du XIX^{ème} siècle, dans un tressage ininterrompu de suggestions et de demandes, tant les écrivains et les apologistes de la langue que les pionniers et les guides du «catalanisme» idéologique et politique, se mirent à exprimer les revendications politiques de la langue. La renaissance culturelle, le carlisme et le traditionalisme, le fédéralisme et le nationalisme (bourgeois, populaire ou socialisant) seront des témoins d'une revalorisation consciente de la langue comme élément national. Les **Bases de Manresa** (1892) sont un repère, même dans ce sens.

Avant la 11^{ème} République, la droite nationaliste, dirigée à cet occasion par Cambó, engagera la défense parlementaire la plus brillante de la langue catalane (1916), tandis que dans ces moments d'hésitation ou claudication, s'élève la voix délatrice de la gauche patriote. L'oeuvre de la «Mancomunitat» (1914) sera tronquée dans sa réalité et ses espérances par la Dictature (1923-1930).

La nouvelle vague de répression aboutit à exaspérer les courants politiques (tentatives armées et programmes indépendantistes de Macià). Seule la politique statutaire de la République ouvrira de nouvelles voies de récupération linguistique au point d'occuper de nouveau le contour politico-social naturel que correspondait à la langue nationale; mais il est bien entendu qu'il n'est pas permis, d'après la Constitution, de retourner au point antérieur à celui de la colonisation linguistique engendrée par la législation de Felipe V. Mais le thème de la politique linguistique républicaine reste hors de ce travail.

(Pour terminer, disons que les textes ont été en général de la **Panoràmica del nacionalisme català**, de F. Cucurull).